





ALKIZAKO HERRI ALDIZKARIA 21. ALEA

Oilategitik

2021







OILATEGITIK 2021 | 21. alea

_ERRETORE-ETXEA HERRIAREN ONDAREA. INAKI IRAZABALBEITIA	4
MENDIOLATIK	
_ATZERA(KA). MANU URRUZOLA	6
ALKIZAKOAK	
_ELIZEGIKO ETXEKOANDREA. IMANOL LIZARDI	10
_BITXIKERIAK. JOSE MARI ARANTZABE "PEPE"	15
_2020. URTEAN JAIOTAKO HAURRAK. JOSE MARI ARANTZABE "PEPE"	16
_IKASLE BERRIEI ONGI ETORRIA ALKIZAKO ESKOLARA. ALKIZAKO ESKOLA	17
ALKIZAKO ESKOLATIK (ALKIZAKO ESKOLA)	
_AGURRA	18
_ARANZADIREKIN HERNIO-GAZUMEKO FAUNA EZAGUTZEN	19
_MAGIA ALA ZIENTZIA?	20
_IKASTURTE BEGIRADA	22
_2020-2021 IKASTURTEAK EMAN DUENA	23
PENTSAMENDUA ETA FIKZIOA	
_PENTSATZEA, SENTITZEA, LIBRE, DENON ESKUBIDE. IXIAR IRULEGI	26
_TXERTOAK ZENBAKIAK ETA DINOSAUROA. XABIER ARTOLA ZUBILLAGA	30
_PERTZEPZIOEN DANTZAN ETA BALANTZAN. SHRABANI ARANZABE	32
_ETA JENDEA ETXEAN GELDITU ZEN. JUAN BAUTISTA ARANZABE "MATE"	33
ARTEA	
_OCAÑA, DISIDENTZIA LANDATASUNETIK. MARIA GIRÓ	34
_NOMAD STUDIO ALKIZAN. ELI GARMENDIA	36
_SOINUA ETA PANDEROA ALKIZAN. IMANOL LIZARDI	39
ANTZINATIK	
_IKASKUNTZA ETA MAITASUN ISTORIO AHAZTEZINA. JUAN BAUTISTA ARANZABE "MATE"	44
_GOITIZENAK. JOSE MARI ARANTZABE "PEPE"	46
NATURA	
_KATU KONTUBAK. INAKI IRAZABALBEITIA	48
_MAYI. AINHOA JAUREGI OTAÑO	50
_BEGIRATOKIAREN IBILBIDEA. INAKI IRAZABALBEITIA	58



> Inaki Irazabalbeitia

ERRETORE-ETXEA HERRIAREN ONDAREA



> Erretore-etxea



Erretore-etxea gaur egun ezagutzen dugun moduan XIX. mendearen hasieran eraikitako eraikina da, 1805ean hain justu. Poltsa handiko Alkizako seme batek ordaindu zuen obra, baina ez zen oparia izan. Jeronimo Alkizalete alkate izandakoak ederki ondo kobratu zuen jarritako dirua, donazioa ez eta mailegua izan baitzen parrokiari egin ziona. Urtero parrokiak elizaren diru-soberakina dirua eman behar izan zizkion zorra kitatu arte.

Historia eta istorioak baditu gure etxe horrek. Bigarren karlistadan Santa Kruz apaizak sarri aterpetzen omen zen Erretore-etxean parrokiaren abaroan, karlista parrokatua bera.

Historia hurbilean euskara barnetegia bertan ostatu hartzea izan da, dudarik gabe, bere ezaugarriak nagusiena. Zenbat ume eta ez horren ume ikasi edo landu dute euskara bertan Euskal Herriko bazter guztietatik etorrita? 15.000tik gora esaten badugu, ez gara exageratzen ari!

Eskola zaharraren aterpe ere izan da, berria eraiki bitartean.

Eta aurrerantzean zer? Etorkizuna eraikitzeko lehen pausua egin dugu; Gipuzkoako Eliz Barrutiaren jabetzako hiru solairuak erosi baititu udalak. 240.000 €-tako inbertsioa izan da, udal aurrekontu arrunt baten % 40aren tamainakoa gutxi gorabehera. Kreditua eskatu behar izan dugu jakina eta Kutxabankek eman digu; 10 urtean ordaintzeko konpromisoa hartu dugularik. Zorra aritzeko Euskal Jaurlaritzaren Leader dirulaguntza eskatu dugu. Lerro hauek idazteko unean erabakiaren berririk ez dugu, baina gauzak ongi egin baditugu zorraren erdiaren inguru kitatzeko modua izan dezakegu.

Eta ondoren? Udal taldearen asmoa eta helburua da Erretore-etxean turismoari lotutako azpiegitura osatzea da, horren bidez enplegua sortzeko eta

herriko ekonomia indartzeko. Azpiegitura horren ezaugarriak hauek izatea nahi dugu:

- Ostalaritza-azpiegitura. Herri-ostatura eta lo-gelak
- Taldeak ostatatze azpiegitura; barnetegia
- Bisitarien harrera-gunea
- Erabilera anitzeko gela
- Fagus-Alkiza interpretazio-zentroa

Herri-liburutegia udaletxera eramango litzake proiektua amaitzean.

Herritarren iritzia ere aintzat hartuko dugu eta zuen ikuspegia eskatzeko asmoa dugu latzen ari garen proiektuari buruz. Beta izango da! Izan ere, 8-10 urtetan garatzeko proiektu moduan planteatu dugu, egitasmoak osora 1.500.000 € inguruko aurrekontua baitu. Lanak apurka-apurka egingo dira, diru-laguntzak eta kanpo-finantzazioa lortzen den heinean. Esku artean egutegi hau daukagu:

- 2021. Erosketa eta apainketa xumea
- 2022. Eguzki-plakak eta eraginkortasun energetikoa
- 2023. Irisgarritasuna: igogailua eta eskailerak
- 2026tik aurrera. Turismo-azpiegitura: ostatura, logelak, erabilera anitzeko gela eta Fagus-Alkiza interpretazio-zentroa

Hau da, lerro hauek idazten ari naizenean daukagun aurreikuspena. Publikatzen direnerako, akaso, beste ikuspegi bat izango dugu, Alkizako udala eta Tolosaldeko beste 7 udal Eusko Jaurlaritzaren Turismo Saila Next Generation europar funtsen pentzura landa-eremuko turismoa indartzeko ateratzear den diru-laguntzetara aurkezteko proiektu amankomun bat lantzea ari garelako. Erretore-etxearen birmoldaketa horren parte da eta lortuko bagenu, beste epe eta beste finantzatze-eskema bati buruz hizketan arituko gara.



> Manu Urruzola Aranzabe

ATZERA(KA)

Martera iritsi gara, sateliteak bueltaka dabilta goiko parajeetan (behekoetan ere bai), munduari bira di-da batean ematera iritsi ginen aspalditxo, osasungintzan, zientzian eta ikerkuntzan izugarritzko aurrerapausoak eman ditugu urte gutxian, gizonezkoa erditzen ezagutu dugu orain gutxi; baina badira urte batzuk esaten ari naizela, edo hala uste dudala behintzat, aurrera ez baina atzera goazela. Horren bizkorrak bagara edo bagina, zergatik ez zuen mundu mailako horrelako gertakizun larririk inork aurreikusi? Eta nork esango ote zigun urte terdi geroago oraindik ere horrela ibiliko ginenik? Auskalo noiz arte gainera. Hainbat eta hainbat kontuetan atzera goazela iritzita, errepasso bat aurtengoan bai Alkizako eta bestelako kontuekin. Atzeraka noski.

Z ZALANTZA urtea 2021. hau. ZORIGAITOKOA askorentzat, azken hilabeteetan ZIURGABE-TASUNIK gabe ibili gara, ZIRRIKITU bila hainbat uneetan ZORITXARREZ, birus, xomorro edo gaixotasun hau dela medio. Hala ere ZORIONEKOAK aurten ere fin-fin eskuartean dugulako Oilategitik. ZAIN geunden.

Y euskal trenea delakoa. Ustez hain gertu izango duguna eta ezagutuko ez duguna (gutxienez 2040 urterarte). Alferrik xahututako milaka eta miloika diru publiko. (Atzera).

X XELEBRETZEN ari dela gizarte hau era-kusten duen adibide bat ondorengoa. Hau irakurtzen ari zaren bitartean konturatu gabe suge batek kosk egiteko arrixkuan bazaude, ez burutik pasa narrastia akabatzerik, arrixku bikoitzean zaude eta. Hori bai, Twiter izatea ia derrigorrezkoa bertan argazkia ipini eta hortik aurrerakoa konponduta. (Atzera).

W WEB da azken urtetako hitza zalantzarik gabe. Denon zalantza edo informazio guztia argitzen dituen mundu zabaleko armiarma sarea. Hala ere dena eskura edukitze horrek eta teknologi berriek ez ote gaituzte ba galduko erabat?



> Hitzetik hortzera dabilta olatuak eta semaforoak.
© Ander Morea

V VALENTZIARRAK, ukraniarrrak, granadarrak, marokoarrak, argentinarrak, herberetarrak,... hainbat herrialdetik etorri da Alkizara bizitzera azken urteetan. Duela urte asko ez dela bertakoen artean ezinezko edo arraro irudituko zena baina pixkanaka hau ere herri anitza bihurtu da. Onerako noski.

U UMOREA da hemen gure egunerokotasunean gutxiegi erabiltzen duguna. Alde ederra litzateke umore pixka bat jarriko bagenio gure bizitzari. Beti ez bada ere egunean zehar tartetxo bat egingo bagenio gauzak beste era batera izango lirateke.



> Bigarren urtea
jai eta ospakizunik
gabe.
© Unai Sorarrain

T TABERNAK eta ostalaritza izan dira ez-bairik gabe azken hilabeteetako protagonistak. Itxi, ireki, ireki, itxi, errudun, errugabe, aforoak, terrazka, aireztatu, desinfektatu, barruan, kanpoan... Gure herrikoan behintzat arazo handirik gabe moldatu da jendea eta aurrera jarraitzen dute negozioarekin herritar eta kanpokoei esker.

S SEMAFOROEN koloreak erabili dira beste zentzu eta eremu batzuetan. Oraintxe gorri batzuk, oraintxe laranja besteak, berdean noiz jarriko asko eta asko. Ea halakoren batean konturatzen garen behintzat gorriak ezezkoa, debekua edo ezin dela pasa esan nahi duela.

R RENOVE PLANA. Autoak aldatzeko hasi zen kontu hau, etxeetako leiho eta etxetresna elektrikoetaraino iritxi zen azkenean. Bada, ea noiz irixten den beraiek sortutako plan hau edo antzekoren bat politikoetara eta noiz ikusten hasten garen aurpegi berriak alderdi politiko guztietan. Ikusi xamartuak bait daude, diskurtsorik gabe edo betiko diskurtoarekin.

Q QUEEN taldearen “We Are the champion” abesti ezaguna eskeintzea merezi dute aurten osasun langileek, zientzila-

riek, ikerlariek eta haurrek. Etenik gabe gure osasunarengatik ari diren lanagatik lehenengoek eta haurrek helduoi ematen ari diguten exenpluagatik. Beste behin.

P PENAZ argurtu ditugu aurreko urtekaritik geroago betirako gure artetik joan zaizkigun herriko edo herritarrak. Mertxe, Ixabel, Amaia, Praxku eta herriko ehiztari elkarteko hiru bazkide; Jose, Andres eta Genaro. Aipamen labur eta sentikorrena Mendiolatik beraientzat.

O OLATUAK ere bili-bolo dabilta ba. Orain arte eguraldiaren aurreikuspeneko informazioarako eta kostako herrietan ohikoa goa izan denean hitz hau entzutea, zer eta lehorreraino etorri zaizkigu olatuak. Kurioso gainera nola deitu izan diegun. 1. olatua, 2. olatua, 3. olatua, 4. Olatua, 5. Olatua. Izango ote dugu 6. olaturik? Ea baretzen diren aurtengoan.

Ñ ÑABARDURA bat egitea derrigorrezkoa da pare honetara iritxi eta hitz polit honekin topo egitean. Bizitzari egunero ñabardura jartzen zaion honetan aipatu behar da egia esan “Ñ” hizkiarekin ez dagoela aukera haundiegirik bat aukeratzera.



> Argazkian, Ixabel zena "Oilategitik" irakurtzen.
© Maxux Aranzabe

N NEGUA. Aspaldiko partez ezagutu dugu aurten bere izenak ongi adierazten duen urtaroa. Elurrez zuritu ditu Hernio eta Herniopea dexente bider, egin ditu izozte batzuk ere eta tira, zerbait behintzat xuxen ibili den seinale azken urtean.

M MUSUAK. Ene zenbat faltan botatzen diren musuak eta besarkadak. Musukoak hartu dute musuen lekukoa baina izan gaitzen baikorrak eta etorriko dira garai hobeak eta auskalo nola hasten garen musuak ematen. Erdaraz esaten den bezala, "a diestro y siniestro"?

L LASAITASUNA. Goizean jeiki orduko hasten gara korrika batera eta bestera eta hara eta hona eta hau eta hura egiteko. Astelehentik presaka batean ostirala noiz irixiko. Hilabete hasieran amaiera noiz harrapatuko eta berdin urtearekin. Non galdu ote dugu garai batean zuten patxada hura gauzak egiterakoan? Non ote dugu lasaitasuna? (Honetan ere atzera).

K KOPA. Aurten bai. Urtebete itxaron behar izan badute ere erreal zaleek, halabarrez eta hainbat urteren ondoren, Gipuzkoa aldean poz pixka bat eman duena Erreal izan dela ez dago inolako zalantzarik. Kontuan izanik euskaldunen arteko lehia izan dela, gogoan geratuko den gertakizuna urteetan zehar.

J JAIK, festak, ospakizunak, parrandak,... ai, nola botatzen ditugun faltan Alkizako jaiak; sagardo eta txakoli dastaketak, bertso saio eta herri kirol jendetsu haiek, otorduak, dantza saioak... Ze gutxi behar den gauzak faltan botatzeko eta behar den neurrian estimatu ahal izateko. Ea laster berriro bueltatzen diren lehengo garaiak.

I IXABEL Elizegikoa da beste bat betirako utzi gaituena. Bere bizitza guztian lana besterik egin ez zuen goitik-beherako emakumea. Pazientzi haundikoa eta beti laguntzeko prest zegoena. Erredugarria zalantzarik gabe gaur egunerako.

H HAUSNARKETA, hainbat eguneroko ekintzetan egin beharko litzatekeena baina urte terdi honetan ekintzetan ez baina, ez ekintzetan egin beharko da. Lehen hila-beteetan bai, oso zaila edo ezinezkoa izan zela ezer egitea edo antolatzea baina pandemia aitzakiatzat ez ote den hartu gauzak ez egiteko edo alde batera uzteko. (Atzera).

G G PUNTUA deritzana, Ernst Gräfenberg-ek XX. mende erdi aldera deskribatu zuen bezain misteriotsua gertatu da 2020-2021 urte hau. Inork aurreikuste ez zuen mundu mailako gertakizun honi buruz zer abestuko oten zuen ehun urte lehenago jaio zen Urepeleko artzaiak?

F FAGUS Alkiza interpretazio zentroa, sormenaren kabia, Ur Mara museoa, baso eskola proiektua,... eta beste hainbat ekimen martxan jartzeko balio izan du azkenean behintzat landa eremuko herri txiki euskaldun honek, dugun ondare natural eta kulturala ezagutuarazteko gure mugetatik kanpo. Alkizan Ederki!!

E ENRIKE LARRARTE. Oilategitik honetako hasieratik eta urteroko kolaboratzaile hernaniarrak ere pasa den azaroan utzi gintuen. Eskerrak ematea besterik ez lerro hauen bidez urteroko aletxoak jartzearren urtekari honetan. Agur eta ohore, Enrike!



D DUNBAR antropologoak 1992.urtean bere ikerketen ondorioz pertsona bat beste 150 lagunekin bete betean edo osoki erlazionatu zitekeela zehaztu edo erabaki zuen. Alegia, 150 lagun izan zitezkeela pertsona batek. Gaur egun antropologo berak (Robin Dunbar), zifra hori 5-era jeitsi dela dio bere azken liburuan. Sozializaziorako gure %40 eskeintzen omen diogu 5 lagun min horiei. Pandemia garai honetan zirkulu erabakigarria izan omen da gure osasun mentalerako – dio. Eta zuk, zenbat lagun dituzu?

C COVID. Gure bizitzan nolaz edo zergatik sartu den ez dakigun arren, jada nazkatu eta nekatu gara eta ea erabat ahaztutzen dugun lehenbailehen eta Luna, Lai edo Xarparen ordeztakurrei izen hau jartzera irixten garen. Ez litzateke seinale txarra.

B BIDESARIA edo peajea ipintzea otuko zaio orain baino bizkorrago den politikariren bati 2050.urterako eta orduan komeriak. Norbere etxetik ateratzerakoan lantegietan fitxatzen den bezala ordaintzen hasi beharko ote dugun martxa honetan. Denbora izango da lekuko baina duela lau-urogei urte esan balitzaie orduko handik hamarkada batzutura autoa aparkatzeagatik ordaindu egin beharko zela...



> Fagus Alkiza, herriko etxeko azken solairuan dago ikusgai.

AMA ETA AITA

Errepaso azkar hau norbere gurasoentzat aipamenik hunkigarriena eginez amaitzea onena. Honetan behintzat ez gaitzela joan atzeraka eta aitortu dezagun norbera garen hura norengatik garen eta nondik gatozen. Nekez ulertzen dena guraso bat bere haurrak balkoitik behera botatzera nola iritxi liteken, itsaso zabalera bere haurrak botatzera, norbere ama tiroz hiltzera eta beste antzeko kasu negargarriak. Ohorea ama eta aita guztiei!!

Honenbestez aurtengoa ere kitto. Urte arraroa, urte galdua, urte tristea, zaila, hutsa edo traketsa izan arren “Oilategitik” beti bezain mamitsu dator aurtengoa ere eta goza dezazula irakurle. Hurrengo denboraldia alaiago, zuzenago, lasaiago edo gozoagoa izango dugulakoan... Hala ere aipamen pare bat egin nahi nituzke amaitu aurretik. Jakin, oso denbora laburrean irakurriko dituzun lerro hauek, honetara iritxi aurretik denbora asko kentzen diotela egileari. Atera ditzagun kontuak orduan zer meritu duten liburuak idazten dituzten idazleek.

Beste aipamen berezi edo eranskin bat “A” atalari buruzkoa. AITA eta AMA aipatzean ausartu ez arren baimen edo lizentzia hartuko dut neureak gogoratzeko eta zoriontzeko, aurtengoa bereziki. Eta azken-azken aipamen berezi bat Amaia Ibarbia Urrutiari. Zoritxarrez betirako agurtu gaituen arren ez zaitugu ahaztuko. Eta nik neuk eskertzen dizut nire “Oilategitik” honetako artikulua eta nire idazkera asko estimatu izana, behin baino gehiagotan adierazi bait zenidan pertsonalki. Inoiz aitortu ez banizu ere, jakizu, behin gutun lehiaketa batean epaimahaikide izan zinen eta eskuz idatzitako asko gustatu zitzaizun gutun hura, nirea zela. Zu eta zu bezelako beste batzuegatik jarraituko dugu idazten. Urte on!



> Imanol Lizardi

ELIZEGIKO ETXEKOANDREA

Arrasto luzea utzi zigun Isabel Urruzola Aranzabek joan den abenduan, 97 urte zituela, agur esaterakoan.

Ba al da alkizarrik (haurrak alde batera utzita, jakina) inoiz Isabelek zerbitzatutako mokadu, kafe edo tragoren bat hartu ez duenik? Ba al da alkizarrik inoiz Isabelekin notiziaren bat partekatu ez duenik? Eta Isabelek egindako mesederen baten onura jaso ez duenik? Eta edozein gairen inguruko solasaldi luze edo labur bat mantendu ez duenik?

Harrigarria zen hizketarako zuen gaitasuna, eta harrigarria zen batez ere haren bizitzari buruzko ikuspegi zabala, irekia. Eta zuen jakinduria. Zeinen garbi ikusi ahal izan genuen ikasi nahi duenarentzat ez dagoela bizitza bera baino irakasle hoberik.

Gizaki orok uzten du arrastoa mundu honetako ibilbidea amaitu, eta ingurukoengandik alde egiterakoan. Bai, denek. Eta Isabelek Alkizan utzitakoa ez da nolana hiko. Berak agur esan aurretik, baziren jada urte batzuk bizi osoan zabalik mantendu eta mantentzen zuten Elizegi estankoa, Elizegi taberna, Elizegi elkargunea itxi, eta herritarrekin harreman zuzenik ez zuela. Baina ez zuen horrek inola ere arindu joan den abenduaren 4an bizilagun izan gintuenok gorputza zeharkatzen sentitu genuen ziztada. Isabel joan egin zen, bai, eta nork daki Isabelekin batera ez ote zen joan baita ere herri hau ulertzeko modu bat, herri honetan bizitzeko era bat.

1923. urtean jaio zen Intxaurren baserrian. Hamaiaka senide ziren etxean. Gurasoak, Nikaxio eta Juana. Bizitzak txikitandik erakutsi zion aurpegi alaiaren bestaldean, iluna ere bazuela. Hamabost urte zituela, 1938an, Antonio anaia gerran hil zu-

ten 20 urterekin. Handik urte batera, saminak eta tristorak jota, ama hil zen. Ez zuen Isabelek bizitza erraza izan. Ziurrenik, inor gutxik zuen garai hartan bizitza erraza, baina Isabelek behintzat ez. Hogeita zazpi urte zituela, Elizegiko Joxerekin ezkondu zen. Lehendabiziko semea eta gero baita lehendabiziko alaba ere hil egin zitzaizkien jaio eta berehala. Gero, denok ezagutzen ditugun beste sei seme-alaba izan zituzten: Joxe Mari, Ramon, Maixabel, Jexux, Juan-txo eta Maxux. Bilobak, berriz, sei zituen: Maider, Ander, Jokin, Mikel, Shrabani eta Izaro; eta birbiloba bat: Aiert. Gu Isabelen inguruko kontu gehiago ezagutzeko asmoz, bere hiru seme-alabarekin elkartu gara: Jexux, Maxux eta Joxe Mari. Hizketan hasi dira, hasi gara, eta liburu bat osatzeko adina kontu jaso arren, hona hemen laburpentxo bat:



> Isabel eta Jose Joakin ezkongaietan (Maixabel Aranzabe)



Arratsalde on hiruroi. Ezer baino lehen, nolako ama zen Isabel?

Guk zer esango dugu ba? Bakoitzak bere amarengatik gauza bera esango du, baina guretzat izan zitekeen amarik onena izan zen. Bera guretzat izan zena hitz batean laburbiltzekotan “bihotza” hitza aipatuko genuke. Bihotz handikoa zen.

Gatozen pixka bat, Isabelen bizitzari buruz zerbait gehiago ezagutzera. Hitz egiten al zizuen haurtzaroari buruz? Zer kontatzen zuen?

Oso gustukoa zuen hitz egitea. Askotan aritzen zen kontu-kontari. Bera neskatxa zenean, oraindik ez zegoen karreterarik inguru honetan, gurdibidea bakarrik. Gogoan dut nola kontatzen zigun oinez etortzen zen jendearen zain egoten zirela Intxaurrendiko atariko koskan, antoxinarekin ura emateko. Antoxina edalontziaren moduko metalezko ontzi bat zen, kirtena zuena. Eta trukean goxokiak ematen zizkieten, besteak beste, malbabisko karamelu handi batzuk. Antoxina iturriaren ondoan egoten zen, agerian, baina amak-eta gorde egiten zuten, horrela pentsatzen zuten antoxina beraiek ekarria zela, eta errazagoa zen ibiltariak zerbait ematea. Sasoi hartan opariak urriak ziren. Kontatzen zuen Errege egunean laranja bat eta txokolate ontza bat izaten zuela opari. Behin, jantzirik ez zuen muñeka edo panpina bat ekarri zioten. Hura festa!!! Arropak berak egin zizkion.

Gaiztakeria txikiak egiten bazekiten orduan.

Jakina. Horrelako pasadizo asko zituen. Esaterako, gazte-gaztea zela, etxerakoan Arana bailarako neskak Urrutikoetxeko sagastitik pasatzen omen ziren sagarrak jatera, eta goitik Don Angel apaiza begira egoten zen, eta hurrengo egunean esaten zien: “zein da bosgarren mandamendua?”. Eta amak-eta: “ez dezu lapurretarik egingo”. Eta berak: “eta zein ibili zen atzo Urrutikoetxeko sagastian sagarrak lapurtzen?” Amak eta konplize begiratuarekin: “orain ere harrapatu gatziztin” Eta guk esaten genion: “eta gero zer ama?” “Guri bost axola. Egun batean edo bitan egoten ginen hartu gabe, baina gero berriro ere sagarrak hartu eta etxera”.



> Isabel Elizegin (Maixabel Aranzabe)

Eta eskolan? Ibili al zen eskolan?

Bai, bai. Hamabi urte arte ibiltzen ziren orduan eskolan, eta gure ama ere horrela ibili zen. Gero base-rrian lana sobera zuten. Isabelen maistra Victoria Santiago Izquierdo zen. Haren senarra Justiniano Velasco, zapatagilea. Zapatak konpontzen zituen Alkizan. Eskola garai hartan Juanenan zegoen, berria 1932an egin baitzuten, amak 9 urte zituela.

Orduan, gazte-gaztetandik egokitu zitzaion lana egitea

Lana? Jakina. Berdura saltzera Tolosako merkaturara joaten zen, astoarekin. Gero zaldia ekarri zuten. Zaldia oso abere urduria zen; hori dela eta, Arramaleko fabrikako tutuak noiz jotzen zuen ere kontuan hartzen zuen etxera abiatu aurretik. Berduraz gain, intxaurrak, sagarrak, aranak... ere eramaten zituzten. Eta ikatza. Ikatza oso garrantzitsua zen orduan. Oraindik ere gogoratzen zen Tolosako zein etxetara eramaten zuen ikatza. Bidean lokatza handia izaten zen, eta beraiek ez zikintzeko astoa bidetik bidaltzen zuten, bidea ondo ezagutzen baitzuten, eta bakar-bakarrik joateko gai baitzen. Bitartean, eurak basoan zehar joaten ziren. Berarekin Arana bailarako beste neska batzuk ere joaten ziren, Antzietakoak, Arritzakoak, Agerrekoak... Lagundu beharra zegoen, etxean denek egiten baitzuten lana gogotik. Intxaurrenditik oso gora geratzen ziren Urteaga eta Gamaneko barrutietara joaten zen aitari-eta lanean ari zirenei janaria eramatera. Belarretan aritzen ziren. Garai



> Senar-emazteak eta seme-alabak (Maixabel Aranzabe)

hartan ukuiluko lanak gizonezkoek egiten zituzten. Bera sukaldean aritzen zen, baratzean, arropa eskuz garbitzen... Askotan esaten zuen labadora izan zela emakumeentzat egin zen asmakizunik handiena. Inaurkintara ere joaten ziren lerarekin, garoa, orbe-la-eta biltzera, behien azpiak egiteko; baita errotara ere artoa ehotzera. Makina bat talo egina da!

Saltzen zuten ikatza beraiek egina al zen?

Bai, orduan Alkizan ikatza asko egiten zen. Baina langintza horretan gizonezkoak aritzen ziren. Gure amaren etxeok Allusen egiten zuten. Astebete edo hamar egun pasatzen zituzten horretan. Sukaldea edo otorduak bertan egiten zituen aitona. Gaua pasatzera anaiak joaten ziren, hau da, Periko, Antonio, Millan... Intxaurrendik borda zuen mendian. Baina ama ez, ama ez zen gaua pasatzera joaten.

Jairako tarterik ere izango zuten...

Ez orain bezala, baina bai, noski. Orduan Hernioko erromeriak izaten ziren Zelatunen. Neskak eta mu-

tilak aparte joaten ziren, baina gero, etxerako bueltan, elkartuta etortzen ziren, eta jakina, harreman haieetatik bikoteak-eta egiten ziren. Gure aitona oraindik ez zuen hori nahi, eta Donostiara eramaten zituen estropadak ikustera, mutilekin ez ibiltzeagatik. Gure amari estropadak ez zitzaizkion askorik gustatzen, baina joan egin behar izaten zuen.

Kostata orduan, baina maitemindu ere maitemindu zen.

Bai. Oso gogokoa zuen gure aita. Beti esaten zigun aitarekin harremanetan hasi zenean, bere aitak, Nikaxiok, nahiago izango zuela aitarekin baino baserriko mutil batekin hastea, gure aita plazako umea izanik kaletarra iruditzen zitzaio-lako; baina hori pentsatuko bazuen ere, inoiz ez ziola halakorik esan amari eta beti errespetatu zuela amaren nahia. Osabak kontatzen zigun aita astelehenetan feriatik bueltan etortzen zenerako, ama zain egoten zela bidean. Zoriontsuak izan dira biak.

**Eta elizak? Nolako eragina zuen elizak orduan?**

Handia. Gure aitona Nikaxio oso-oso elizkoa zen. Don Julian apaizaren laguna zen. Egunero Ave Mariak errezatzen ziren, eta horiek hasterako etxean egon behar izaten zuten. Iluntzen hasten zuenean egiten ziren errezoak ziren. Egunero errosarioa errezatzen zuten, eta gauero ohera joan aurretik “acto de fe” delakoa egiten omen zuten aitak eta osaba Eugeniok. Jakina, bazkaldu aurretik mahaia beti bedeinkatu egiten zen.

Lagunik? Ba al zuen lagunik?

Nola ez ba? Bere lagun handiak ziren Aretako Lorentxa Otaegi, Garroko Bibiana, Ikiliko Bittori, Maitongo Isabel eta Otsamendiko Aurea.

Beno. Orduan, ezkondu eta Elizegira etorri zen. Zer zen orduan Elizegi Alkizarako?

Gauza asko: taberna, ostatua, denda. Ultramarinos-a zen. Ia denetik zegoen: xaboia, eskobak, leja, gailetak, eskolarako materiala... Pixka bat denetik. Bestalde, Aldapa bailarakoak, Azaldegikoak eta Sakamidrakoak eskolara etortzen zirenean, han bazkaltzen zuten. Etxetik ekartzen zuten janaria gurean berotu eta ogia eta ur-ardoa ematen genien. Orduan haurrak zirenak oraindik orain esan digute zeinen ondo zaintzen zituen amak, aterkiak ere nola uzten zizkien amak euria egiten zuenean. Baserrietatik mezatara etortzen zirenak ere, lokaztutako oinetakoak gure etxean aldatzen zituzten, elizara txukun sartzeko. Gero bueltan, berriz jantzi, eta martxa. Mendizaleei ere, hamaiketako egin bitartean, bustitako arropak lehortzen uzten zieten. Gure ama 1951n etorri zen Elizegira. Jatetxea ere bazen garai hartan. Hileta ondorengo otorduak, jaunartzeak, bataioak, denetarik egiten zen Elizegin. Jantokia goian zegoen.

Apopiloak ere izaten omen ziren.

Bai, bai. Iturriozko artzaina Karmelo zen horietako bat. Negua hemen ematen zuen. Baso-mutilak ere askotan egoten ziren. Maisu-maistrek ere gure etxean bazkaltzen zuten. Horiek etxea zuten lo egiteko, baina baziren bi maistra, bata Errenterikoa eta bestea Logroñokoa, Elizegin lo egiten zutenak; azken horren amak esan omen zuen bere alabak ez zuela bakarrik lo egingo. Neska gaztea zen, nonbait, eta amak ez zuen bakarrik utzi nahi herrian.

Sukaldari onaren fama zuen. Horrela al zen?

Bai, bai. Aparta zen. Tabernarako egiten zuenaz gain, egunero 10-15 lagunentzat prestatzen zuen bazkaria. Denetik prestatzen zekien: haragia, arraina, eltzeko kontuak, menstrak... Baina fama berezia zuena, bai Alkizan eta baita inguruko herrietan ere amak prestatzen zuen salda zen. Bazen anoetar bat bereziki etortzen zena Alkizara bere salda hartzera. Ez omen zuen horrelako saldarik beste inon aurkitzen.

Eta ordutegia? Zenbat orduz egiten zuen lan?

Urteko egun guztietan irekita zegoen, jaikitzen zenetik oheratzen zen arte. Goizeko zortzietan irekitzen zuen. Guk esaten genion: “ama, ez ireki hamarrak arte”, baina ez zigun kasurik egiten. Oporrik egiten ez zekien. Edozein ordutan prestatzen zuen jateko edozer gauza, norbaitek behar bazuen. Eguberri egunean bazkaltzeko ixten zuen. Bestela, beti zabalik. Gainerakoan ere lan asko egiten zuen. Egun osoa lanean ematen zuen. Ez dugu aipatu, baina esan beharra dago gure ama oso jostun ona zela. Denetarik egiten zuen: etxeko umeentzako jantziak, galtzerdiak, jertsea, gortinak... Otorduak amaitutakoan ere, deskantsatzeko aukera izanda ere, beti zerbait egiten aritzen zen: arropak konpontzen, josten, puntua egiten... Ez zen geldirik egotekoa. Garai hartan, emakume gehienak izango ziren horrelakoak, baina gure ama ere ikaragarria zen horretan.



> Loreak zaintzea oso gustukoa zuen (Maxux Aranzabe)



Goian aipatu dugu hitzun aparta zela Isabel. Zer diozue?

Oso hitzuna zen, bai. Ziurrenik azokan asko ibili zelako zen horrelakoa. Tratuan asko ibiltzeak eman zion gure ustez abilidade hori. Gaztelaniaz nola moldatzen zen ere harrigarria zen. Kanpokoekin, bertakoekin, solasean aritzea oso gustukoa zuen.

Eta bizitzari buruz zuen ikuspegiaz?

Bere bi ahizpa moja joan ziren, baina txikitandik omen zuen garbi bera ez zela moja joango. Behin, Tolosan ikatza erosten zion gizon batek hala esan zion: “no te creas que porque se hayan metido monjas son mejores que tu”. Esan dugu familia oso erlijiosoa zela, oso. Berak, ordea, heldutasunean, bazuen elizak eta apaizek herritarrengan zuten eraginaren inguruan nolabaiteko ikuspegi kritikoa. Kontuan izan, gazte zenean, beste hainbat debekuren artean, mutilekin dantzatzea galarazita zegoela. Askatasuna mugatu egin ziotela zioen.

Bukatzeko, zer?

Laburtuz, esango genuke amarengandik jaso dugun bizitzarako lezioa honako hau dela: **“ez egin okerrik inori ere, ez egin besteei zuei egitea nahi ez duzuen hura, eta segi egiarekin aurrera”**

Ausardia litzateke azken hitz horiei ezer ere gehitzea. Mila esker hiruroi, eta mila esker, zuri, Isabel.

> Isabel, azken urteetan (Maidier Gallurralde)



Hona hemen abenduaren 5ean, Alkizako elizan, Isabelen aldeko hileta-elizkizunetan Anjel Mari Peñagarikanok kantatutako bertsoak:

1

Abenduaren laua bustia ta umel
Hernio gaina zuri ta Alkiza goibel,
Intxar-Haundin jaioa zortzi haurren sabel,
nola esan ze andre izan dan Isabel

2

Dohai asko ta onak zenitun zuregan,
langile nekaezina beti lan eta lan,
baratzean, tabernan, estankoan, dendan
une oro erakutsiz maitatzea zer dan

3

Seme alaben besotan zure azken hatsetan
agur esan zenien malko garratzetan,
oroituko zaituzte goiz ta arratsetan,
ta egunero ikusi gaueko ametsetan

4

Goxotasunez eta maitasun betean,
gauza bat egin dezu hainbeste urtean,
beso zabalik hartu edonor joatean,
halaxe hartu zaituzte zeruko atean

Doinua: Markesaren alaba



> Jose Mari Aranzabe

BITXIKERIAK

2021eko urtearen haseran 362 biztanle zeuden erroldatuak Alkizan. Horretarako, 12 alta egon ziren (jaiotza 1 eta beste herrietatik etorritakoak, 11) eta 21 baja (6 heriotza eta beste herri batera joandakoak, 15). Guztira, aurreko urtean baino 9 biztanle gutxiago.

10 GIZONEZKO ZAHARRENAK 2021EAN

Pantaleon Saralegui Eizmendi	98 urte	Basazabal baserria
Pedro Urruzola Aranzabe	96 urte	Intxaurrandiaga aurrekoa baserria
Jose Ayerbe Zubiarrain	92 urte	Etxabe-txikia baserria
Juan Martin Gorostidi Ugartemendia	88 urte	Mariategui baserria
Gregorio Iruretagoyena Ugartemendia	88 urte	Lete-berria baserria
Javier Iruretagoyena Urquidizar	86 urte	Igaranzabal baserria
Simon Uzcudun Ugalde	83 urte	Arizmendi-gain baserria
Milian Roteta Irazusta	80 urte	Azaldegui-Etxeberri baserria
Tomas Urruzola Ugartemendia	79 urte	Intxaurrandiaga atzekoa baserria
Antonio Alberdi Eizmendi	79 urte	Altzorbe baserria

10 EMAKUMEZKO ZAHARRENAK 2021EAN

Aurea Saizar Goenaga	98 urte	Katalandegi txiki etxea
Natividad Iraola Iguaran	92 urte	Bengoetxe atzekoa baserria
Carmen Cruces Perez	91 urte	Juanena etxea
Maria Josefa Ayerbe Zubiarrain	90 urte	Otsamendi behekoa baserria
Justa Arsuaga Eizmendi	88 urte	Aginaga goikoa baserria
Miren Mendiola Begiristain	86 urte	Igaranzabal baserria
Maria Purificacion Toledo Eceiza	85 urte	Udarrats-gorri etxea
Maria Teresa Belamendia Otamendi	84 urte	Perualdea auzoa
Bittori Letamendia Usandizaga	83 urte	Areta baserria
Maria Cristina Elola Goñi	83 urte	Antzieta baserria



AITANA





> Alkizako eskola

ONGI ETORRI IKASLE BERRIEI!!!

Laster zabalduko ditugu 2021/2022 ikasturterako atea, eta Alkizako 2 urteko 4 ikasle berri eta Tolosatik Alkizara datorkigun familia berriko bere 5 urte semea. Beso zabalik hartuko ditugu guztiak. Hiru familia berri izango ditugu beraz eskola komunitatean. Ongi etorri!!!



AINTZIRA
OTAMENDI
URKIOLA



IRAI
SAN SEBASTIAN
URRUZOLA



MIA
ALTUNA
ARANZABE



OIER
SANSIÑENA
ORMAZABAL



BEÑAT
OLANO
AGIRRE



> Alkizako eskola

AGURRA



Hamar urte ondoren da
garaia amaitzeko
ibilbide polita
egin duzu seko
kirolari trebea
Forniten konpleto
zure plantak pila bat
dauka eskertzeko
animo aurrerantzean
segi horrela Eneko



Zure aurrean Gorka
behar dugu makurtu
egin duzu zailena
erreza bihurtu
zinez esan askotan
garela beldurtu
etzazu arren hezur
gehiago apurtu
hona etorri sarri
ta lasai agurtu



Egunero kontentu
zatoz eskolara
zure inguruan dena
poza ta algara
zure ondoan bizitza
errazagoa da
jarrai zazu zabaltzen
alkizar patxada
eta segi alaitzen
herria Enara



Ikasketetan fin, fin
berdin futbolari
adarra jotzen ere
beti jostalari
orain arreta jarri
denon agurrari
tarte bat emaziozu
alaitasunari
izenari eutsi ta
izan ameslari



Pertsona jator, zintzo
langile bikaina
badoa eskolatik
ta nola alajaina
hemen guri uzten digu
bihotzean mina
trikitixa eskuan
berak daukan grina
ea nork alaitzen duen
Ikernek adina



Aurpegian daukazu
irri naturala
aurrera egiteko
zuk daukazu ahala
merezitako oporrak
datoz berehala
jarrai orain bezain fin,
alai ta apala
goza ezazu Laia
mereziz bezala



> Alkizako eskola

ARANZADIREKIN HERNIO-GAZUMEKO FAUNA EZAGUTZEN

LH 4 eta 6ko ikasleek inguru hauetako hegazti eta intsektu espezieak ezagutu zituzten Aranzadiko Ornitologia Saileko bi adituren laguntzaz.

Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak Alkizako Eskolara gerturatu ziren, eta bertako ikasleei hiru saio eskaini zizkieten: Lehenengo saioan, hegaztiak landu zituzten; bigarren saioan, intsektuak ezagutu zituzten; eta azkenik, mendi ibilaldi batean, aurrez ikasi eta landutakoa zuzenean ikusteko aukera izan zuten. Ibilaldi hartan, ikasle bakoitzak hegazti zein intsektu espezie bati buruz prestatutako lana aurkeztu zuen.



> Alkizako eskola

MAGIA ALA ZIENTZIA?

LH 3-2 gelak aurtengo 3. hiruhilabetekoan argia landu du. Hori aurkezteko magia ikustaldi bat egin dute beste ikasle eta irakasleentzat.



Anton eta Igotzek aurkezpena egin zuten eta gero esperimentuak egin zituzten.


Inhar eta Udanen esperimentuak “txanpon ezkua” izena zuen. Esperimentua egiteko txanpon bat, edalontzi bat, oihal bat eta txarro bat urarekin erdi beteta erabili zituzten. Udanek oihala kendu zuen eta edalontzi baten azpian txanpona bat jarri zuen gero ura bota zuen edalontzira eta txanpona desagertu egin zen. Argia airean eta uretan desberdin mugitzen da. Horregatik ura botatakoan desbideratu egiten da eta txanpona desagertu egiten da.

Oinatz eta Juneke “arkatz hautsia” izeneko esperimentu bat egin zuten. Edalontzi bat hartu arkatza sartu, ura bota eta arkatza puskatuta bezala ikusten zen.

Hori gertatatu zen argia uretan edo kanpoan desberdin portatzen delako.

Laida Jokin eta Izeik Newtonen diska egin zuten. Esperimentua egiteko disko bat koloreztatu egin zuten. Gero zuloan kola beroarekin kanika pegatu eta bueltak eman zizkioten. Horrela koloreak desagertzen ziren.







errotulugailu iraunkor bat, piramide baten txantiloia, zeloa, sakeleko telefonoa edo tablet bat.



Maren eta Brunaren esperimentoa izan zan “argidun izakiak”. Badaude izaki bizidun batzuk ilunpetan argia egiten duenak adibidez: perretxikuak, marmokak, ipurtargiak etabar. Maren eta Brunak gizaki bat argia egiten erakutsi zuten linterna urdin batekin eta fosforitoekin.

Izadi eta Naiak holograma esperimentua egin zuten azetatozko horri batekin goraizeak,

Bukaeran, Adei eta Adurek agurra egin zuten. Saio ederra benetan. Baina zer izan ote zen magia edo zientzia?





> Alkizako Herri Eskolako Komunitateak

IKASTURTE BEGIRADA



Ikasturte berezia biziko genuela jakinaren gainean geunden. Ez genekien oso ondo nolakoa izango genuen, ezta eskolan umeak zenbat egongo ziren ere. Beldur ginen denok aurreko ikasturtekoa errepikatuko ote zen.

Zalantzaz beterik hasi genuen, umeak nola jasoko zuten eskola ia sei hilabete eskola gabe izan eta gero, nola antolatuko genuen eskola osasun neurriak bermatu ahal izateko, nola erantzungo genion egoerari norbaitek gaitza jaso ezker.

Haurrak primeran etorri ziren, gogotsu eta alai. Eskola berriak aukerak eman zizkigun taldeak ondo kokatzeko, espazioak ederrak baititugu. Eskola komunitateak ere hasieratik heldu zion erronkari. Eta horrela hasi genuen ibilbide luze eta neketsu hau.

Orain, ikasturtea bukatu berri den honetan, bidea urratu dugula esan genezake. Ezina, ekinez egin dio esakerak. Eta horrela izan dela azpimarratu nahi dugu. Denok elkar hartuta, gure gora beherekin, noski, baina aurrera egiteko borondatearekin.

Ikasturte amaiera honetan izan dugu albiste tristea ordea, gure kidea genuen Amaia Ibarbiak utzi egin gaituelako. Eskolaren alde makina bat ekarpen egingakoa da, eskola berriari ilusioz begiratzen zion eta pozik, hainbeste borrokatu ondoren lortu genuelako, Alkizak merezi duen eskola bazuelako. Zure indarrak lagunduko digu bidea urratzen, Amaia.

Eskola berri hori inauguratzeko aukerarik gabe geratu gara, momentuz. Batzuk ikusi ere ezin izan duzue egin. Lasai egon, behar den garaian eta merezi dugun moduan ikusi eta inauguratzeko aukera izango dugu.



> Alkizako eskola

2020-2021 IKASTURTEAK EMAN DUENA

Igaro berri dugun ikasturtea osasun egoera bereziak baldintzatu du eta ikasleen begirada gardenak eskaini digu bizi irauteko indar freskoa. Eguneroko jarduna egokituz, kanpoan "ikastea" baloreari jarri dugu.



> Baso-eskolan bide berriak arakatu ditugu, Gregorioren Basoa oinarritzat hartuz.



> Kanposantu inguruan edukiak landu ditugu (hizkiak, zenbakiak, seriozioak, sailkapenak...)


Ikasleen bizilekuak, inguruak, ezagutu ditugu




> Eta ERREKA deskubritu dugu



> Urrutira joan beharrez, bertakoa baloratu eta gozatu dugu. ARGIA, MUSIKA ETA UMOREA NAGUSI





> Ixiar Irulegi

PENTSATZEA, SENTITZEA, LIBRE, DENON ESKUBIDE

Aurten, nahiz pandemia egoeran jarraitu, *zoriontasuna* hitzarekin egingo diogu aurre txoko honi. Denoi ekintza berberak egiten al gaitu zorionsu? Emozio ezberdinak eta egoerak kudeatzeko erak ba al du eraginik zoriontasunean? Komunikabideek ba al dute influentziarik gure zorionean?...

Milesker aurten parte hartu duzuen herritarrei eta ea datorren urtean ere animatzen zareten, hitza *nor-tasuna* izango da.

Laisterrin laisterran, hegan hegan, denok parrez eta algaran.

Alaitasunerako “dieta”: goizero irribarra eta iluntzero esker ona.

Batzutan nahikoa izaten da esaldi bat zoriontasuna usaintzeko. Beste batzuk dieta betetzea proposatzen dute. Eta ea gure herritarrek zer ekarpen egiten diguten.

Hitza: **ZORIONTASUNA**

Galderak: **HITZ HONEK ZER DAKARKIZU BURURA?
ZEIN SENTIMENDU ESNATZEN DIZU?
ZER EKINTZETARA BULTZATZEN ZAITU?**

LAIA LARRAURI (12 urte)



Zoriontasuna hitzak, familia, animaliak eta udara dakarkizkit burura: familian denbora pasan gabiltzanean; udaran, Extremaduran, gehienbat lagunekin ibiltzen naizenean; eta animaliak etxean edukitzea da gehien gustatzen zaidana.

Hauk guztiek poza sentiarazten didate.

Zoriontasunak ere bultzatzen nau musika entzun, musika jo eta ipuinak sortzea: ingelesezko musika da gehien erakartzen nauena, euskal instrumentuak eta ukelele jotzea dira atsegin ditudanak, eta ipuin alaiak dira zoriontasun handiena ematen didatenak.

AMETS MUGIKA (12 urte)

Gustuko dudan zerbait egiterakoan sentitzen dudana da burura etorri zaidana: mendira joan, pizinan ibili, bizikletan jirabiran aritu...

Zoriontasunak esnatzen dizkidan sentimenduak poztasuna eta alaitasuna dira.

Futboleko ibiltzera bultzatzen nau, hau baita zoriontasun gehien ematen didana.



**ALAITZ ARANZABE (34 urte)**

Zoriontasuna, ondo gaudenean, pozik gaudenean sentitzen den sentimendu bat da. Gizakia gustura edo konforme dagoenean lortzen dela uste dut, ongizate maila on bat lortzen duenean. Bere erronka edo helburuak betetzen dituenean adibidez.

Gizakia zoriontsu izango da, izaki bezala errealizatzen denean. Izakiak elikatzea, ugaltzea eta haztea ditu jarduera gisa. Baina denentzat ez dela berdina esango nuke, bakoitzak bere zoriontasun mota bilatzen baitu bizitza honetan. Batzuk gauza gutxirekin konformatzen dira, beste batzuk aldiz, meta edo erronka anbizio handikoak dituzte.

Baina egia da gizarteak, estatus, rol eta estereotipo handiak markatzen dituela eta kanon hauek ez baditu betetzen bigarren mailako pertsona bihurtzen duela norbanakoa, bereizketa sozial handiak sortuz. Arlo ekonomikoak eragin handia du. Bestetik, zoriontasunarekin lotuta eguneroko bizitzan eragin nabarmena duena arlo ekonomikoan, lana da. Langabezia dauden pertsonen nire ustez zoriontasun maila baxuagoa izango dute, depresioa, antsietatea, konfiantza eza... autoestimuan eragina izan dezake.

Arlo ekonomikoaz gain, estatus pertsonala eta lanari esker osatzen dugun ingurune soziala urratzen baititu. Lan eskasa edo prekarioak ere zoriontasun eza bultzatzen du, ongizate maila ez delako ematen. Baina batzuk, nahiz eta ekonomikoki diru asko izan, ez dira horrekin konforme eta ez dira zoriontsu, eta beste batzuk aldiz pobreak dira eta zoriontsu dira. Konplexua da.

Bestetik, norberaren burua eta besteena (familia, lagunak, ingurune hurbila) bermatu behar ditugu, zoriontsu izateko positibotasuna sustatu behar dugu, entzunak sentitu behar gara, hau da, inguruko jendearen maitasuna sentitzea ezinbestekoa da zoriontasuna izateko.

Bestalde, gauza materialei garrantzirik ez emateak zoriontsuago egingo gaitu, baina horretarako gure inguruko pertsonen garrantzi handiagoa eman behar diegu. Baina gure gizartean zaila da materialei ez jaramonik egitea, gure bizimoduan beharrezkoak direlako bizirauteko, lehen beharrak baitira: janaria, etxea, jantziak.

Zoriontasuna gauza txikietan aurkitu behar dugula uste dut. Zoriontasuna gure barnean dago eta bizitzan zehar, garai desberdinetatik pasa beharko dugu, batzuk momentu ez hain onak eta besteak onak, lehen horiek kudeatzen ikasten badugu, izango gara zoriontsu.

JOXE MANUEL OTEGI (60 urte)

Zoriontasun hitzak askotan, gure baserri inguruan edo mendian bakarrik zaudenean sumatzen duzun hori dakarkit burura; gustura zaudenean. Hala ere, batzutan hain ederki zauden horretan, beste batzuetan alderantzizkoa ere gertatzen zaizu, agobiatu egiten zarela.

Jende artean, inguruko guztiekin familia barne, biltzen garenean ere sentitzen dut zoriontasun hori.

Poztasuna, barruko pakea, alaitasuna, jenio txarrarekin zaudenean denak ahaztu arazten dizun sentimendu hori; zoriontasunak sentimendu guzti hauek esnatzen dizkit.

Harremantzera bultzatzen nau: famili giroan ibiltzea, aldamenekoekin biltzea, hauzokoekin jardutea. Obretan lan egin izan dut, eta horretan aritzen garen arteko lan girotik sortutako koadrilarekin joaten gara tabernara, taberna elkartzeko lekua bezala hartzen dugu, bestela ez dut tabernetan ibiltzeko ohiturarik. Langirotik sortutako harreman hori, nahiz jubilatuta egon, oraindik ere mantendu egiten dugu eta asko eskertzen dut.

Pandemia dela eta, harreman guzti hauek mugatu egin arren, hasiak gara pixkanaka pixkanaka elkartzen.



DORI (44 urte)

ZORIONTSUA. ZERGATIK EZ?

Zenbat gauza bilatzen ditugu bizitzan? Gehienok bizitza osoa pasatzen dugu saiatzen gure helburu pertsonalak betetzen, hau da, gero eta ikasketa gehiago edukitzen lan hobea lortzeko eta gauza gehiago edukitzeko: etxe hobea, kotxe modernoagoa, diseinuzko arropa, gero eta opor gehiago leku gehiago ezagutzeko, hizkuntzak ikasten munduan zehar ibiltzeko... Zer iruditzen zaizue kontatzen dizuedana? Edozeinen bizitza izan daiteke, ezta?

Orduan, esan dezakegu aipatutako gauzak lortzean zoriontsu izango garela? ez dut uste... Gaur egungo gizarteak helburu huts horiek lortzea garamatza, baina sorgin burpil batean bizi gara eta behin lortuta hutsak geratzen gara eta helburu berriak bilatu behar izaten ditugu. Baina, zergatik ez gara gai gurpil horretatik atera eta gure bizitza askoz modu erreza goan bizitzeko? hau da, bizitza simple eta ZORIONTSU batean?

Agian, arrantzale atseginaren ipuina kontatzen badizuet, hobeto ulertuko didazue:

Udako arratsalde batean, negozio gizon aberats bat kasualitatez hondartza batetik igaro zen. Han, gizon gazte bat ikusi zuen hondarretan eserita, bere familiaren konpainiaz gozatzen ari zen bitartean itzalpean freskagarri bat hartzen ari zen. Negozio-gizona hurbildu eta galdetu zion:

- *Kaixo. Barkatu etetea, baina ikusi dut hemen eserita zaudela lan egun batean. Oporretan zaude? Lanik gabe agian?*
- *Inola ere ez. Arrantzalea naiz. Han ikusten duzuna nire ontzia da. Gaur goizean arrantzan atera naiz eta egun osoa familiarekin pasatzen ari naiz.*
- *Interesgarria. Uste dut ur horiek oso eskuzabalak direla arrainetan. Hala da?*
- *Bai, hala da, izan ere ordu pare batean arraina merkatuan saltzeko adina lortzen dut, eta nire familiari ez zaio ezer falta.*
- *Baina ez dut ulertzen. Arrantzatzea hain erraza bada, zergatik ez zara egun osoan irteten?*
- *Zertarako?*
- *Horrela arrain asko lortuko zenituzkeelako, eta handik gutxira beste itsasontzi bat erosi eta beste arrantzale bat kontratatu ahal izango zenukeelako.*
- *Zertarako?*
- *Horrela, are diru gehiago irabaziko zenukeelako, eta ontzi gehiago erosi eta arrantzale gehiago kontratatu ahal izango zenituzkelako.*
- *Bai, ulertzen dut, baina zertarako?*
- *Izan ere, urte askotan lan gogorra egin ondoren, ziurrenik enpresa lider bat lortuko zenuke arrantzaren sektorean. Baliteke burtsan kotizatu ahal izatea, eta erretiroa hartzen duzunean, dirutza izango zenuke.*
- *Eta zertarako nahi izango dut hori?*
- *Izan ere, dirutza hori daukazunean, hondartzaren batean erretiratu ahal izango zenuke, eta bizitza eguzkitan gozatu, familiarekin batera.*

????

Orain berriro egingo dizuet lehenengo galdera, ZORIONTSUA zergatik ez? Askotan ahazten zaigu garrantzitsuena zoriontsua izatea dela. Haurrei nagusiak izango direnean zer izan nahi duten galdetzen diegunean, haien erantzunak denok dauzkagu buruan, baina erantzun zuzen bat baino ez litzateke egon behar, hau da, ZORIONTSUA IZAN!

Munduko aberatsenak izan gaitzke eta bizitzako helburu garrantzitsuenak lortu, baina gure arrantzalea bezala denbora behar dugu ahusnarketa pertsonala egiteko eta uneaz gozatzeko, zoriontsu garela jabetzea eta esatea, azaltzea eta partekatzea familia eta hurbil daukagunarekin. Agian ezin dugu gauza handirik eskaini, baina denok zoriontsu izaten laguntzen duten xehetasun txikiak errazak eta doakoak dira: irribarre bat, iruzkin atsegin bat...

Gainera, bitxia bada ere, zoriontasunak eragin berezia du, COVID baino kutsakorragoa da eta zoriontsu izatea lortzen duenak efektu hori bere inguruan dituen lagunei transmititzeko gaitasuna du.



DOLORES ARSUAGA (64 urte)

Burura datorkit adibide bat: tarta eder bat dago, baina zuk zati bat duzu; ez duzu osoa, dena, zurea izatea lortuko; zure zatiarekin konforme bazaude, zoriontsu zara; dena zurea izan nahian, borroka horretan bazaude, ez zara zoriontsu izango, ez duzu eta lortuko.

Ba datorkit ere, ume ginen garaieko zoriontsu izaten ginen uneak:

Mezetara joaten ginen egunetan, baserri batekoak eta bestekoak, bidean batzuk besteekin batuz, behar izanez gero denen zain egonaz, giro ederrean elkarrekin joaten ginen momentu zoragarriak.


Eskolara joaten ginenean ere, baserritik atera eta Bipagoetara iristen ginen lehenengo ikasleek, bi pagoen erdian zegoen harri handi baten gainean, beste harri jakin bat kokatzen genuen, hortik pasatu ginen seinale; beste baserrikoak gero hortik pasatzen zirenean, harria kokatuta zegoela ikustean, bazekiten beste baserrikoak aurretik pasatuak zirela. Aurrena izateak zoriontasun puntu bat ematen zigun. Eskolatik bueltan fin-fin, sekulan ahaztu gabe, goizeroko jokia hautsi ez zedin, goizean jarritako harria kendu egiten genuen.

Zoriontasunak patxada, gozotasuna, lasaitasuna, neure buruarekin gustura egotea sentituarazten dit.

Zoriontasuna batzutan **bilatu** egiten dugu: fama, dirua... eta bai, ematen dute zoriontasuna, baina gauza handik momentuko zoriontasuna ematen dute, agortu egiten den zoriontasuna. Beste batzuk zoriontasuna **eman** egiten digute: seme-alabak, senideak, senarrak, familikoak, lagunak... Baina benetako zoriontasuna, uste ez duzun lekuan aurkitzen duzu, **etorri** egiten zaizu, inoiz agortzen ez den iturri bat gelditzen da zure barruan, gauza txikiak ematen duten zoriontasuna da hori; betiko zorion iturria, agortzen ez dena. Edozein momentutan zoriontasuna behar dudanean, hor dago eta horra noa bertatik edatera. Esango nuke hau, barruko zoriontasuna dela eta besteak kanpokoak.

Hala ere, badakit horren ondoan triste, haserre... egoteko eskubidea badudala eta egoerak eskatzen duenean tristetu edo haserretu egiten naiz .

Hitz honek bultzatzen nau saiatzera, nik dudan zoriontasun hori besteei transmititzera.



> Xabier Artola Zubillaga

TXERTOAK, ZENBAKIAK ETA DINOSAUROA



Goiko argazki hori Asturiasen atera nuen, 2020ko udan. “Normaltasun berria”, duela urtebete hitzetik hortzera generabilen espresioa: zertan geratu da? Zertan izan da normala aurreko *Oilategitik* argitara eman genuenetik orain artekoa? Berritik izan al du batere?

Hona ekarri ditudan hiru testu labur hauek, berriz, *blogoetak* izeneko blogean argitaratuak dira¹, iazko abendutik aurtengo apirilera. Hala ere, oraingoan ez ditut blogean argitaratu diren hurrenkera berean eman nahi izan...

Joan den urtearen bukaera aldera, gaitz guztien sendabide gisa *saldu* ziguten txertoa. Zenbat

gorabehera ditzosozko txertoekin! Horren inguruan idatzitako poema labur bat da lehen testua. Bigarrena, berriz, zenbakien gaineko gogoeta bat, gure bizimoduaren alderdi guztiak —eta pandemia dela-eta areago, esango nuke— zipriztintzen dituzten zenbakiez, *kopurukeriaz*. Azkenekoan, amets goxotan ibili eta gero Monterrosoren dinosauroarekin topo egin zuen baten gorabeherak kontatzen ditut. Neguko ipuintzat har badaiteke ere, ez legoke gaizki udan ere presente izatea, dinosauroa uxatzea ez baita lan makala!; horregatik, iazko abenduan idatzia den arren, azkena ipini nahi izan dut hemen, gogoan izateko.

1 <https://artzubi.eus/wp/blogoetak/>



Ilusioa itzuliko digun esperantza

Ez zela inoiz iritsiko uste zuen...
 eta etxe atarian genuen bi egun baino lehen.
 Bi asteko kontua izango zela pentsatu zuen orduan...
 eta berrogeitik gora asteburu joan zaizkigu supituan.
 Bi hilabeteen kito, zioen bere baitan seguru...
 eta bi urtebetetze ere aurki ospatuko ditugu.
 Bi dosiren zain geratu zen azkenean inozente hura...
 Bi dosi horietan jarria dugu, antza,
 ilusioa itzuliko digun esperantza...

2021-01-15

Zenbakiak

Zenbakiak dira agindun
 gau eta egun, zero eta ehun.
 Zenbakiak dira zentzen, ez pertsonak
 kopuruak aipagai beti, ehunekoak.

Zenbakiak dira agindun
 gau eta egun, zero eta ehun.
 Zenbakiak dira kausa, ez akatsak
 kopuru da oro, etekin, efizientzia.

Zenbakiak dira agindun
 gau eta egun, zero eta ehun.
 Zenbakiak dira albiste, ez heriotzak
 kopuruak nagusi, zoria, patua.

Zenbakiak dira agindun
 gau eta egun, zero eta ehun.
 Zenbakiak dira, ez odolbatuak
 kopuruak, ez izen-deiturak.

Zenbakiak dira agindun
 gau eta egun, zero eta ehun.
 Zenbakiak dira onurak
 kopuru, kalteak.

Zenbakiak dira agindun
 gau eta egun, zero eta ehun.
 Zenbakiak, olatu
 kopuruak, kurba.

Zenbakiak dira agindun
 gau eta egun, zero eta ehun.
 Zenbat da nagusi, ez nola
 kopuruak, ez kalitatea.

Zenbakiak dira agindun
 gau eta egun, zero eta ehun.
 Zenbakiak, zenbakiak, zenbakiak
 kopuruak, kopuruak.

Zenbakiak agindun, gau eta egun,
 zero eta ehun...

2021-04-12

Monterroso

Etorri bezala joan zen, hurbildu bezala aldendu. Erabat ustekabeen.

Kasuak urrituz joan ziren ezarian-ezarian, kurbak apalduz, zenbakiak eta albistek gutxituz; hutsean geratu arte. Itzuli ziren enkontruak, bihurtu besarkadak, azalera irten muxu gordeak. Atzendutako hazpegiak ezagutu genituen berriro, aurpegiak bistaratzeaz bat. Honetaz hitz egiteari utzi eta hartaz mintzatzen hasi ginen, lehenaldian.

Eurite luze baten aterraldia bezalakoa izan zen, negu latzaren ondorengo udalehena. Izotz beltzak lurmentzen ari zituen eguzki goxoa zen hura.

Esnatu nintzelarik, ordea, Monterrosoren dinosauroa zer zen aditu nuen azkenean: hantxe zirauten artean neguak, euriak eta izotzek. Bero-bero jantzi eta kalera irten nintzen.

2020-12-12



> Shrabani Aranzabe


PERTZEPZIOEN DANTZAN ETA BALANTZAN

Aspalditik gauza guztiak definitzen saiatzen gara, guztiari izena jartzen. Azken hau kontuan harturik, hitzen etimologiaren inguruan idazteko nahi beste izango nukeen idatzi xume honetan leku emanik. Hala ere, ez da gaurkoan izango, lekuak leku ez diren lekuetatik idatzi nahi baitut oraingo honetan, bizia bizitzera estu eta larri jokatu dudan alde honetatik.

Koordenada berean gaudela kontuan harturik, zuk eta nik bide ezberdinak izan ditugu aukeragai eta leku ezberdinetara iritsi gara. Egun, gauza asko gertatzen ari dira gure inguruan eta deus ez dela gertatzen dirudi. Ez gara gai gertatzen den ororen berri jakiteko, gure belarriak ez du gaitasunik guztia entzun eta bereizteko, modu pedagogikoan ez bada gure begiek ezin diote guztiari sorik egin eta covid-19- pasata edo pasa gabe dastamenak oraindik pasadatxoak ematen dizkigu. Pizza labetik atera berri dagoenean ahoratu egiten duzun horietakoa al zara? Ukimenak oraindik ez gaitu erremediatu.

Behar bada debeku zerrenda askoren ondorio gara eta denborak egin gaitu oharkabe. Agian, gehiago entzun beharko genuke ohe hutsen dantza, apika pertzepzioei leku eman beharko genieke guztia definitzen eta hitzez izendatzen saiatu beharrean.

Batzutan, noizbehinka bederen, isiltasunaren hasperenak xuxurlatzen dit belarrian, lapurtutako denbora itzuli behar diodala erreklamu eginez. Eta nik, nahiz eliza katolikoko sinesduna ez izan erruki eskatu ohi izan diot zeruko jaun onari, las-tozko zubietan babes nazan eta zubia ez dadin erori, hura bai sentimendu handia.



Sentimenduei eta sinesmenei dagokienez, gure bihotzaren eta ingurukoenen taupadak mugitzen gaituztela aburu dut, beste definizio zein izenda-penik gabe. Arraza, kolorea, kultura zein irribarre egiteko modua kontutan izan barik.

Pertzepzioen dantza eta balantzen inguruan oreka bilatu nahi nuelakoan, min bizigaien inguruan hasi eta sinesmenetan hondartu dut. Pasiboak hazi ez gaituelakoan, gure taupadak zein ingurukoena mugitzen gaituzte, bai: uraren dantzak, haizearen dantzak, itsasoaren dantzak, eguzkiarenak, erreka gardenarenak, belazeen dantzak, gure dantzak, sortuko diren dantzak eta bizitza beraren dantzak. Aniztasunak egiten gaitu berezi. Elkartasunak egiten gaitu aberats.

Eta zu? Zerk mugitzen zaitu?



> BALCISCUETA ARANZABE "TAR ION UGUTZ "MATE"
JUAN BAUTISTA ARANZABE BALCISCUETA "MATE"


ETA JENDEA ETXEAN GELDITU ZEN

Pandemiari

Maite ditudanekin elkartu naiz berriro azkenean,
nahiko zaurituta denak, baina poza gorputzean
bizirik atera dira eta. Txertoarekin hartu zaitugu mendean,
batzuk plan bat bururatu zuten gurekin bukatu nahiean,
baina zalantza dut lortuko ote duten azkenean.
Joan diren gure lagunak bihotz eta oroitzapenean
inoiz ez zarete geldituko ahanzturaren mendean,
aurretik joan zineten, gaixotasun traidorearen atzaparrean
beti izango zarete gure gogoan, eta iristen den unean
sentimenduz ariko gara gure hurbileko zereginen;
oroitzapen bat, lore bat eta musu bat bihotzean
arimatik aterea, hartu dezazuen zaudeten gunean,
eta beti oroituko zaituztegu maitasun bete-betean.

=====

Koronabirus, ederra egin duzu, egin duzu zauritu,
hil, baina ni ezin izan nauzu garaitu,
poza, txaloa eta bizitza nire bihotzean erditu
eta barruan ezin adierazpen hoberik kabitu,
jazarpen errukigabetik irtenda, osorik jarraitu.
Koronabirus hogeiko hamarkadan aritu
zoritxarrez oso ezagun, jendea jota garbitu,
zure bidean nire lagun asko gaizkitu,
zu berriz ez ikustea amets hori bizitu,
inoiz ez zaitugu ondo hartuko, ez harritu,
agurtzera noa, zoaz betiko pandemia pozoitu,
munduaz jabetu zinen, mundua atxikitu,
eta nirekin erreparorik ez, ez zinen kupitu.





> Maria Giro¹



OCAÑA, DISIDENTZIA LANDATASUNETIK

1. ILBEHERAREN ARRASTOARI JARRAITUZ

Alkizara iritsi eta gutxira istorio bat kontatu zidaten. Ahotik ahora zetorren istorio zaharra, ahots desberdinekin eta xehetasun aldakorrekin. Dirudienez, Ocaña artista Alkizan egon zen 1980ko hamarkadan. Izen horrek itzularazi zidan unibertsitateko lehen urteetara, zeinetan Ravalgo tabernetan ustezko underground erakusketak inauguratzen zirela uste genuen, jakin gabe Bartzelonako auzo mitiko horren alderik politenean eta gentrifika-

tuan geundela. Alkizan, arranblarik, kabaretik eta antzokirik gabe, Ocañak ilargi itxurako ondare ederra utzi zuen; bertan egon zenean sortu zuen obra. Ia 40 urtez, ilargi horren argiak pertsona ipurterreen jakin-mina piztu du, hala nola Eider andereñoarena eta Juankar maisuarena, eta imaginario koloretzu ocañatarrean barneratzera gonbidatu ditu. Haiei eta haien ikerketei esker idatzi dut istorio hau. Hor zintzilik mundu guztiak ikusi duen ilargitik datorren istorioa,



¹ Maria Giró i Coll, artista eta kultur kudeatzailea. Martxoaren erdialdean, Seu d'Urgelletik (Katalunia) Alkizara iritsi zen Ur mara museoan Kultur Kudeaketako masterreko praktikak egitera. Elena eta Koldobikarekin batera, herriko, bertako jendearen eta inguruaren istorioetan murgildu da, eta bere historia Alkizako bizipenen tapizarekin lotu du.



> Mariak egindako collagea.
José Pérez Ocaña eta Alkizan egin zuten ilargia agertzen direlarik



pinturan hasi zen, baina laster zabaldu zen bere adierazpen-aukera; izan ere, bere bizitoki berria, Raval auzoa, korronte kontrakulturalen gainezka zegoen. Raval gune promiskuo, oparo eta, aldi berean, txinatar auzoaren isla zargaldua da eta bertan performerrak lilura eragiten du. Bere performanceetan, Ocañak Andaluziako emakume pertsonaiak gogorarazten zituen; haien jatorrietara jotzen zuen, besteak beste, heriotzaren, maitasunaren, lurraren eta Ama Birjinaren debozioaren inguruko eszena lazgarriak irudikatzen. Arranbla osoan egindako ariketa horiek poliziak atxilotzea eta jipoitzea ekarri zuten behin eta birritan; are gehiago, maritxua eta diktadura ondoko Espainian LGTBI eskubideen aldeko militantea zelako.

2. NOR IZAN ZEN OCAÑA?

Ocaña 1947an jaio zen Sevillako Cantillana herrian. “Ocaña, retrato intermitente” (Ventura Pons, 1978) dokumentalean, txikitatik ingurunearekiko, herriko jendearen bizitzarekiko, paisaiarekiko eta tradizioekiko kezka bereziak zituela azaltzen digu berak. Bere sexu-orientazioak ere munduarekin harremantzeko modua zehaztu zuen Izaera hori haur-garaian lastategiko ume-jolas eta ezkutatutako musuen bidez azaleratu zen. Gertakari horiek eta Ocaña gaztearen portaera konplexurik gabeak gazte zaharragoen eta heldu batzuen arbuioa eragiten zuten, haiek gutxietsi, iraindu eta harriak botatzera iritsi baitziren.

24 urterekin, Ocañaartzelona libertario eta errebelde batera joan zen, diktadurak kendutako eskubideen konkistan ziharduena. Han Arte Ederren Akademian matrikulatu zen eta artista gisa garatu zuen karrera. Bere praktika artistikoa

3. OCAÑA ALKIZAN; DENBORA LABURRA, PRESENTZIA BIZIA.

Ocañaren ospea handituz joan zen LGTBI eskubideen aldeko aldarrikapenekin batera, gero eta ezagunagoak baitira estatu osoan. 1970eko hamarkadaren amaieran, Ocaña nahiko ezaguna zenartzelonako zirkulu kontrakultural eta artistikoetan, eta haren erakusketak Kataluniako hiriburutik kanpo ere egiten ziren. 1983an, bere azken erakusketa izango zena, egin zuen Donostiako Altxerri galerian. Testuinguru horretan ezagutu zuen Alkizako Juan Luis Goenaga margolaria, eta erakusketa prestatzen ari zela baserrian egun batzuk pasatzera gonbidatu zuen.



> Eli Garmendia

NOMAD STUDIO ALKIZAN

> Eli Garmendia eta Carlos Pericás.



2021eko urte honetan gure ibilbideak parada garrantzitsua izan du Alkizan: Retrato Nomada proiektuaren lehen erretratuak bertan egin ditugu, eta datu hau inoiz ahaztuko ez dugun zerbait da.

2019-ko udaberrian hasi ginen proiektu honen nondik norakoak prestatzen eta udazkenean egin genuen lehen harremana Edurnerekin emailaz. Minutu gutxitan jaso genuen bere erantzuna, eta ulertu genuen Alkizan, Edurneren bitartez, topatu genituela proiekturako lehen aliatuak.

Gure Alkizarako bisita 2020-ko maiatzean izatekoa zen, baina, zoritxarreko birusa tarteko, gainontzekoen bizitzak bezala gureak ere bat bateko geldialdia izan zuen. Azkenean, urtebeteko atzerapenaren ostean, gure ibilbidea normaltasunera bueltatu da (naiz eta musukoen eta gelaren mirabe izan).

Alkizara iristea, bi urteko lanaren lehen pausoak praktikan jartzea izan da proiektuari dagokionean, eta ondorioz, emozionalki momentu bizia izan da, teoriarik landutako eta prestatutako xehetasun guztiak praktikan jartzeko unea. Eta hau, nola ez ikasketa garaia izan da; ikasketak, letra larriak. Alde batetik, proiektuaren ingurukoa, baina bestetik, bizi ikasketak.

Ongietorri bikaina izan genuen Alkizan. Haur-eskolako umeak izan ziren gure lehen konplizeak, eta haur eta gazte atsegin eta irekiak topatu genituen. Naturaltasunez eta kuriositatez gugana

hurbildu ziren, mila galdera eginez! Eta gu, gustura! Gero haien gurasoak, eta jarraian lehenengo aitona-amonak etorri ziren. Haurren bitartez hasi zen ahoz-ahokoak emaitza bikaina izan zuen. Baina badakigu herriko zenbaiten telefono mugikorrek jo ta fuego aritu zirela, deiak, whatsappak, lehen egunean grabatu ziguten bideoa bidaltzen... denak gure egonaldiaren berri eman eta proiekturako parte hartzea pizteko. Eskerrik asko, zuek gabe, emaitza ez litzateke berdina izango!

Gure egonaldia laburbiltzen duen bideotxo bat jarri genuen Alkizak retratonomada.com webgunean duen atalean. Hitzez laburbiltzeko halako zerbait litzateke:



Plaza, paisaia, natura, haurrak, ekaitza, madalenak, egunsenti zoragarria, euskadi irratian elkarriketa, eurria, hotza, txorien kanta, lainoa, sagardoa, paseoak, ostatuko jaki goxoak, intxaurrak, kanpaikadak, eskolako haurren bisita, bertsoa bitxaren estudiotik, loreak, txakoliña, merienda, elkarriketak, marrokiar pastak tearekin, txorixo pintxoak, isiltasuna, mendia eta basoak... eta erretratuak, 210 hain zuzen ere!

Eskerrik asko.

Proiektu honek zuek gabe ez du zentzurik, zuek zarete protagonista, eta zuentzako da, eskerrik asko babesagatik, eta parte hartzeagatik!

Alkiza gurekin daramagu. Bueltatuko gara!







> Imanol Lizardi

SOINUA ETA PANDEROA ALKIZAN



> Musikariak, dantzariak eta entzuleak Alkizako jaietan, 1960. urtean. (Altzorbe baserria)

Asko dira musika tresna hauen ikasketak egiten diharduten alkizar gazteak

Asko zabaltzen ari da azken urteotan musika zaletasuna Alkizan. Dultzaina, pianoa, solfeoa, gitarra, soinua edo panderoa ikasten ari diren herritarrak hogeita bost inguru dira une honetan. Izan ere, betidanikoa baita Alkizak musikarekin izan duen harremana. Ikusi besterik ez dago bai herriko jaietan, bai edozein konturen aitzakian musika-aireek ingurua hartzen dutenean, nola berehala hasten diren alkizarrak dantzan. Musikariak ere aspaldidanik izan ditugu eta ditugu Alkizan. Aipatzen hasiko bagina, ziur bat baino gehiago ahaztuko genukeela, baina guztiok gatzoz bat esaten badugu nabarmenduenak Peruko Krixpin Sorarrain eta Euskal Herri osoan gaur

egun oso ezaguna den Iker Goenaga direla. Baita haren osaba Martin ere. Dena den, deigarriena, eta edozein musikazale itxaropenez beteko lukeena da etorkizunari begira jarri, eta begien bistan dugun panorama. Kuadrilla ederra ari da azken urteotan arrakasta handia izaten ari diren musika irakasteko antolatzen diren taldeetan lanean. Ale honetan soinua eta panderoaren inguruan dagoen mugimenduari buruz arituko gara, datorren alerako utziaz beste tresna batzuk.

Ikaragarria da soinujole eta panderojoleren harrobia. Astelehenetan plaza izkinara hurbildu baino ez dugu, panderoen laguntzaz hauspoei eraginez gure belarriak herriko gazteek nola gozarazten duten jakiteko. Horren guztiaren ardura nagusia duen Maixarekin, eta haren laguntzaile lanak egiten dituen Aiora Rotetarekin izan gara.



MAIXA LIZARRIBAR: HAN ETA HEMEN GIROA ALAITZEN

Altzon jaioa da, eta bertan bizi da. Ixiar Orejarekin batera urte luzeetan Euskal Herriko musikak eman duen bikote ospetsuenetakoa osatu du. Nork ez du Maixa eta Ixiarren doinu alaiez gozatu eta dantzatu? Sasoi batean, urtean ehun emanaldi baino gehiago eskaintzen zituzten Euskal Herriko plazetan zehar. 1993an Iker eta Larraitz Goenaga anaia-arrebekin batera grabatu zuten lehen diska. Gero, bikoteak “Uhinez uhin”, “Mantagorri” eta “Solasin” plazaratu zituen. Bakarka ere “Maixa” izenpean lan ederra du argitaratua, ahots eztiz, irudimenaren laguntzaz nahi duzun lekura bidaiatzen lagunduko dizuna. 2019an Kristina Solano, Alaitz Telletxea eta Amaia Orejarekin AMAK taldea osatu, eta 2020an Basajaun izeneko lehen kantua kaleratu ondoren, aurten zortzi kantuz osatutako lehen diska kaleratu dute, “Amak” izena duena. Beraz, ez dago atsedean hartzeko. Txikitandik du musika bere pasioa, eta sobera du energia gustuko duen hartan aritzeko.

Ba bai, Maixa hau bera da astero Alkizara etortzen dena, berari esatea gustatzen zaion bezala “soinua” eta panderoa irakastera. Astelehenetan tresnez karga-karga eginda jeisten da kotxetik, ezpainenetan irribarre zabala bezain kutsakorra duela. Hamabost ikasle ditu zain, behatzak gogor astintzeko prest. Alkizako pandero eta soinu-joleak dira. Horien artean badira kanpotik etortzen diren bi ikasle ere. Ez da erraza izan agenda bete-betea baitu, baina lortu dugu tartetxo bat berarekin hitz egiteko. Hara zer kontatu digun:



> Maixa Alkizako plazan soinuarekin (Unai Sorarrain)

Aupa Maixa, ezer baino lehen, noiz hasi zinen soinua jotzen?

Hamahiru urterekin ikasten hasi nintzen. Txikitandik gustatzen zitzaidan zerbait zen, baina etxean ez ninduten ikastera eramaten, orduan hori “gizonezkoen” kontu bat baitzen. Gogoan dut nola esaten zuen amak :”nola sartuko dut alaba gizonezkoen mundo batean? Kosta egin zitzaidan, baina azkenean borroka irabaztea lortu nuen.

Eta jendaurrean soinua jotzen, noiz hasi zinen?

Ixiar eta biok hasi ginen. Nik 17 urte nituen eta Ixiarrek 14. Txapelketa baterako prestatu ginen. Beti iruditu izan zait trikitalarien mundua bertsolariak egindako bidearen arrastoari jarraika ibili dela. Eta garai hartan pil-pilean zeuden txapelketak bertsolaritza, garrantzi handia zuten, eta beraz, baita trikitilarien artean ere. Auzkeztu beharra zegoen, eta gehiegi pentsatu gabe elkarrekin aurkeztu ginen. Geroztik, hamaika urteko ibilbidea egin genuen bata bestearen ondoan.



> Ane, Aiora eta Maixa
(Unai Sorarrain)

Gustura etortzen al zara Alkizara? Zer du zuretzak Alkizak?

Oso-oso-oso gustura etortzen naiz Alkizara. Hasera-haseratik. Lauzpabost urte daramatzat etortzen. Haseran, bi ikasle nituen: Aiora eta Aimar. Oso natural egiten zituzten gauzak, eta oso pozik egoten nintzen, eta orain ere halaxe nago.

Nolakoak dira Alkizako ikasleak?

Oso txintxoak. Alkizakoez gain, Loatzo musika-eskolako ikasleei ere ematen dizkiet eskolak: Altzo, Alegi, Zizurkil, Aduna eta Irurako ikasleak ditut, eta orokorrean denak dira jatorrak. Baina, esan bezala, hemengoak oso naturalak dira, eta gainera beti daude prest edozer gauzetarako. Laguntzeko beti prest. Ikaragarria da.

Ea, ea, ea... Orduan, herri askotan aritzen al zera irakasle?

Batzuetan, bai. Begira, hogeita hamar urte daramatzat Arrasateko eskolan. Altzon ere 17-18 urterekin hasi nintzen. Orain dela hamabi bat urte Loatzo musika eskola Altzora iritsi zen, eta orduan bertan sartu nintzen. Loatzo mankomunitate bat da eta zortzi herriz osatua dago. Asteak 5 egun ditu, eta esan dezaket pixka bat nomada naizela, egunero herri batean ibiltzen bainaiz.

Aizu, Maixa: zure ustez ikusiko al ditugu inoiz Alkizako jaietan, herriko soinujoleak eta pandero-joleak giroa alaitzen?

Aukera badago, jakina. Lehendik ere Alkizan bazeuden eta badaude trikitilariak. Badaude txapelketetan parte hartu dutenak, eta baita sariak lortu dituztenak ere. Halere, nik uste dut pixkanaka joan behar dela, poliki-poliki. Eskola bat sortu eta urte gutxira ezin zaie ikasleei eskatu bere gain emanaldi luze baten ardura hartzea, baina tarte batean jotzeko gaur egun jada gai dira, zalantzarik gabe.

Noiz arte izango zaitugu Alkizan irakasle?

Alkizara etortzen hastea apustua izan zen, hau da, bertan bidea irekitzearen aldeko apustua. Eta denon artean lortu dugula uste dut. Esan bezala, bi ikaslerekin hasi nintzen eta dozena pasata dira une honetan aritzen direnak. Noiz arte jarraituko dudak? Ez dakit. Ni oso pozik joaten naiz, eta bertakoak ere pozik ikusten ditut. Ez dago niretzat hori baino satisfazio handiagorik.

Bukatu egin behar dugu, Maixa.

Ba, bukatu aurretik Oilategitik aldizkariaren aukera hau baliatu nahi dut eskerrak emateko Alkizari eman didan aukera honengatik. Beti egongo naiz eskertua Alkizarekin.

Mila-mila esker Maixa. Iruditzen zait Alkiza dela zurekin eskertua dagoena, ez baita zure mailako irakasle bat norberaren herrira etortzeko aukera askotan izaten. Gainera, jakin badakigu, herriko ikasle gazteentzat irakasleaz gain, laguna ere bazarela, gertuko laguna. Bejondeizula.



AIORA ROTETA ARIZETA: ETORKIZUNA ETA ORAINA

Alkizan jaioa, Alkizan hazia eta Alkizan hezia da hamazazpi urte dituen neska hau. Aita Antzieta baserrian sortua da, eta ama, berriz, aiarra. Hamalau urteko anaia bat du, eta herriko eskolan egin zituen haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako ikasketak. Ondoren, DBH egitera Billabonara joan zen. Gaur egun, Tolosako Orixe institutuaan dihardu, eta Batxilergo 2. maila hastera doa iraila honetan.

Oso gaztea den arren, dagoeneko dezentetan ikusi eta entzun ahal izan dugu bai panderoa, bai soinua jotzen, eta baita abesten ere, ondo baino hobeto abesten baitu. Jakin izan dugu azken ikasturte honetan Maixari laguntzen jardun dela ikasle batzuei eskolak ematen. Maixak berak esanda dakigu txapelketa batean baino gehiagotan parte hartu duela, eta baita sariren bat ere eskuratu duela.

Kaixo Aiora: nondik datorkizu soinua eta panderoarekiko zaletasuna?

Nik uste dut Iturriotzeko festetan bizi izanda-koagatik datorkidala. Bada auzokoek Iturriozko festetan egiten duten bazkari bat, bertan urtero Tapia eta Leturia aritzen dira bazkalosteko giroa alaitzen. Han sortzen zen giroa ikaragarri gustatzen zitzaidan, eta trikitixa ikasten hasteko gogo sortu zitzaidan. Bestalde, trikitixa ikasten hasi nahi nuela esan nuenean, aitona Joxe Mariri ilusio handia egin zion, asko gustatzen baitzaio. Ikaragarri bultzatu ninduen, eta izan nuen lehen trikitixa berak oparitu izan zen. Oraindik berarekin jarraitzen dut.

Orduan, noiz hasi zinen soinua jotzen ikasten?

Lehenago hasi nahi nuen, baina esan zidaten oraindik txikiegia nintzela, eta pianoa jotzen urtebete eman nuen. Baina ez zitzaidan gustatzen. Handik bi-hiru urtera, ni DBH 1ean nengoela, hau da 2015ean, aukera izan nuen Alkizan bertan trikitixa ikasten hasteko, bertara Maixa etortzen hasi baitzen. Orduan bi ikasle bakarrik ginen: Aimar eta biok

Maixak esan digu txapelketetan ere parte hartu izan duzula

Bai. Lau txapelketetan parte hartu dut. Lehendabizikoa Arroakoa izan zen, 2019an. Han txapela atera genuen Zadibiko Eneko Urkolak eta biok. Ondoren, Zumaiako Artadin, San Migelen ermitaren inguruan ere atera ginen. Baita Errezilen eta Zarautzen ere.

Ez al zinen urduri jartzen?

Bai. Baina gozatu egiten nuen. Ziurrenik, lehenengoan egon nintzen lasaienen, presio gutxien orduan nuelako. Ondorengoetan, presioa handiagoa zen, eta urduritasuna nabarmenagoa. Baina, hala ere, oso gustura aritzen nintzen. Aukerarik izango banu, errepikatuko nuke.

Zergatik uste duzu hainbeste gazte ari dela soinua ikasten Alkizan?

Hasieran, lehen esan dudan moduan, Aimar eta biok bakarrik ginen. Nik uste dut jendea kutsatu egin zela. Eta poliki-poliki animatzen hasi zirela. Giro oso polita sortzen du trikitixak, geure geurea dugun euskal giroa alegia. Horrek gazteak erakartzeko dituela iruditzen zait.

Hasi bai, baina zure ustez, jarraituko al dute gehientsuenek?

Nik uste dut baietz. Hitz egin dut beste ikaslee-kin eta oso gustura ari direla garbi dago. Gainera, Maixa irakasle bezela oso gertukoa da, eta gehienontzat klasera joateak gehiago du dibertsiotik



> Aiora, Ane Txapartegirekin batera (Unai Sorarrain)

lanetik baino. Txikiengan ere zaletasuna gero eta handiagoa dela nabarmen ikusten da.

Maixa oso irakasle ona eta gertukoa dela esan duzu. Eta zu, nolakoa zara. Zeren jakin badakigu irakasle gisa ere aritzen zarela.

Bai, egia da. Maixak ikasle gehiegi zituela-eta, proposatu zidan berari laguntzea. Ikasturte honetan bi ikaslerekin aritu naiz: Iraia eta Oinatz. Trikitixa erakusten saiatzen naiz eta oraingoz saiakera bere emaitzak ekartzen ari dela uste dut.

Gustura al zaude?

Bai. Hasieran arraro samar sentitzen nintzen, arraroa da ikasle ikuspuntutik irakasle ikuspuntura salto egitea, baina denborarekin, eta Maixaren laguntzarekin beldurrak gainditu ditut, eta oso gustura aritzen naiz nire zaletasuna besteei transmititzen.

Maixari egin diogu galdera hau, eta zuri ere egin behar dizugu. Zure ustez ikusiko al ditugu inoiz Alkizako gazteak edozein jaitan giroa doinuz alaitzen?

Nik uste dut urte gutxi daramatzagula kontuan izanda, jendeak oso ondo jotzen duela, eta horrela jarraituz gero, animatuko direla, animatuko garela kontzertu oso bat ez bada, pieza batzuk jendaurrean jotzera.

Ba, besterik ez Aiora. Segi irakasten, eta segi ikasten, beti esan izan baita jakinduria inoiz agortzen ez den iturria dela. Ziur, laster, pandemiaren baimenarekin berriro elkartuko garela plazaren batean, zu eta zure lagunak oholtzan eta gu han inguruan. Mila esker.



> JUAN BAUTISTA ARANZABE BALCISCUETA "MATE"

IKASKUNTZA ETA MAITASUN ISTORIO AHAZTEZINA

Istorio hau hasten da, beste istorio asko bezalaxe, gure herrian, baina beste leku batean ere has zitekeen. Gure bi bikotekide hauek hasiera hartan bizilagunak ziren, beraz, hasieratik ezagutzen zuten elkar. Neska, beltzaran panpoxa, polita orduan eta polita orain ere, eta mutilak, lerro hauek idatzi dituenak, burua zuritua du orain, baina ez du ile faltarik. Gaztetan mutil normala zen, ingurukoak bezalaxe, kuadrilla, parrandak, dantzaldiak... Ikaztegia zuten gurasoek eta haiei laguntzen aritzen zen; eskolara ere joaten zen beste umeak bezalaxe (hori bai, klase partikularretara baino ez) eta 14 urte zituela lanean hasi zen, etxetik oso gertu, Gráficas Laborde y Labayen SL enpresan. Eta, horrela gertatzen dira gauzak bizitzan, neska bizilagun hura ere enpresa horretan hasi zen lanean, eta, ondorioz, harremana sarriagoa eta errazagoa izan zen, baina hara jo edo hona jo erabaki gabe. Halako batean, ordea, gogoan dute Errege bezpera zela (opari gisa, beharbada), elkarriketa, irtenaldi... txiki haiek guk, gizakiok, maitasun izenarekin ezagutzen dugun zera hori bihurtu ziren. Elkarrekin modu formalean ateratzen hasi ziren, alegia, harreman formal bat hasi zuten.

Baina zer gertatuko eta (beti gertatzen da zerbait), 1964an, protagonistak soldaduskara joan behar izan zuten, hamahiru hilabete, eta hara joan baino lehen, edukazioz, lankideak agurtzera joan zen, eta une hark halako marka bat utzi zion bizi guztirako, izan ere, neska negarrez gelditu zen hura bazihoalako. Eta ordutik aurrera dena oso azkar joan zen. Ahal zuten edo uzten zioten guztietan etxera etortzen zen, egon ere ez baitzegoen etxetik oso urruti, Arakan (Gasteiz) hain zuzen. Handik Donostiara etorri zen, Infanteriara (Tiro patruila), soldaduska bukatu arte.

Harreman formal hura sendotzen joan zen, eta 1967ko abenduaren 7an, maiz amestu eta gogoz itxaron bezala, ezkondu egin ziren. Neska artean gaztea, hogeitau urte, eta mutilak, hogeita bost. Elkartze hark hiru mutil ekarri zituen mundura, zein baino zen ederragoa, baina zoria, Fortuna jainkosa, ez zuten oso aldekoa izan: aurrenekoa, Iñaki, leucemia linfloblastica aguda izeneko gaitzak eraman zuten betiko, 7 urte zituela; bigarrena, Arkaitz, hura ere abuztuan jaioa, ustez lapurtu egin zuten eta ez genuen inoiz haren berririk izan izugarriko ahaleginak egin arren; hain zuzen ere, ANADIR Gipuzkoa (haur lapurtuak) elkarteko idazkari izana naiz. Hala, urte mordoa igaro eta gero, mutil haietatik, bat besterik ez da gelditzen, Ekain, 46 urtekoa, hori ere, kasualitatearen kontuak, abuztuan jaioa. Tolosa CF taldeko jokalaria izana da eta futbol-epaile nazionala dugu. Hiru biloba ditugu, familiako begikoenak, ahal duten guztietan endredoan ibiltzen direnak eta izugarri maite ditugunak.

Hau idazten ari dena oso ezaguna da herrian eta herritik kanpo, bere bizitzan jarduera pila bat gauzatu dituelako: Inauterietan, Sanjoanetan,



kirol arloan (xakean, 14 urterekin hasi eta gaur arte, eta nazioarteko epailea da), Euskal Xake Federakuntzaren fundatzailea, idatziak egunkari eta aldizkarietan, Udaleko Festa Batzordeko kide 1981etik, “Iturriza” jubilatuen elkarteko idazkaria, Txinparta elkarte lehendakari 10 urtez... Emazteak, bere lanez gain, ahal duen guztietan, senarrari lagundu eta lagun egiten dio konpromiso eta jardueretan, ibilbide luze horretan, estatuko zein nazioarteko hainbat lekutara, bai joan-etorrietan, bai oporretan; eta xakea dela-eta, Galiziako Rias Baixasera (32 urtez), Donibane Lohitzunera, Mimizanera, Daxera, Mirandara (22 urtez), Zaragozara, San Sebastian de los Reyesera, Euskadi guztira...

Gaur egun oso bikote zorionsua da, eta aurten ospakizun izango dute 53 urte daramatzatela ezkontuta; ea egun horretarako covid-19aren pandemia bukatuta dagoen. Batzuek esango dute (hau zoriona!) baina ziurta diezazueket beti esaten dutela bizitza honetan oso garrantzitsua dela elkarrekin bizitzen jakitea eta “elkar eramatea edo agoantatzea”, apaizak esan bezala ezkondu zirenean: “Onerako eta txarrerako, osasunean eta gaixotasunean”. Errezeta moduan diote hori gaur eguneko gazteenentzat, izan ere, “bitxo arraroak” balira bezala begiratzen diete duten agoanteagatik. Jubilatuta daude biak, gizonak 77 urte ditu eta emazteak 73, biena den pisu batean bizi dira, berrogeita hamabi metro koadroko pisu batean, eta garajea ere badute, kotxea eta beste

gauza batzuk gordetzeko, adibidez, senarraren artxiiboak, Inauteri, Sanjoan, xake eta bestelakoei buruzkoak, liburuak eta abar.

Zoriontasun hori bilobekin ere partekatzen dute egun batzuetan, aiton-amonak pozik eta bilobak alaitasunez: Pablok 21 urte ditu,

Luciak, 18, eta Carlak, 15; Carla Espainiako txapeldun izan da hainbat urtetan gimnastika erritmikoan. Era berean, asko gozaten dute beren seme eta errain Igoneren bi txakurrekin, Sakhira eta Lunarekin, oso maitatuak biak ere.

Azkenik, bikote honek bihotzez irakatsi nahi dio mundu guztiari beren esperientzia; osasuna behar da batik bat, zoriona eta, batez ere, pazientziatz ondo osatuta egon behar da eta “elkar agoantatzen” jakin, bizitza honetako ibilbidean ez baita dena arrosa kolorekoa, ezta gutxiagorik ere. Ale hau irakurriko duten lagun alkizar bizkorrei ez diet beste pistarik emango, dagoeneko asmatuko zuten-eta nori buruz ari naizen idatzi honetan.

Bukatu nahi dut covid-19aren erasanik ez izateko itxaropenarekin, Jainkoari esker, eta lerro hauek irakurtzeko aukera izango dugulakoan. Beti bezala, eskerrik beroenak Jose Mari Aranzaberi, aukera emateagatik “Oilategitik” aldizkarian nire iritziak adierazteko, aldizkari honetan lan egiten dutenei eta hura argitaratzea posible egiten dutenei, eta Iñaki Irazabalbeitia lagun eta alkateari. Eskerrik asko.



> Jose Mari Aranzabe

GOITIZENAK



> Hernialdekoak, astoak

Ez dakigu noiz edo zergatik sortu ziren, ez dakigu txantxetan, inbidiaz, haserrez edo identifikatzeko modu batez sortu ziren. Baina badakigu sortu zirela, eta hor jarraitzen dutela. Ondoren, batzuk adieraziko dizkizuet:

Abaltzisketa: txalburuak edo harrikariak; Albiztur: kunplituak; Alegi: zintzarriak; Alkiza: oiloak; Altzaga: zakurrak; Altzo: tipulak; Amezketak: euliak; Andoain: hontzak; Anoeta: kukuak; Arama: idiak; Asteasu: tranpazulo; Ataun: otsoak; Azkoitia: igelak; Azpeitia: zapoak; Baliarrain: zartagiak; Beasain: bareak; Beizama: makilak; Bergara: mokoloak; Deba: tariñak; Donostia: San Vicente elizan bataiatuak: koxkeroak, Koruko Amaren elizan bataiatuak: Joxemaritarrak, eta guztiak: kaxkariñak; Eibar: txaputxeruak; Errenteri: galleteruak; Errezil: akerrak; Ezkio: otamotzak; Gabiri: makilariak; Gaintza: zapoak; Getari: lapajaleak; Hernialde: astoak; Hondarribi: bikingoak; Idiazabal: azeriak; Ikaztegieta: madril-txiki; Itsaso: otamotzak;



> Alkizakoak, oiloak

Itsasondo: ijitoak; Larraul: tabako erretzaileak; Lazkao: antzarrak; Legazpi: ilintxak; Legorreta: pikuak; Lezo: trapu-jaleak; Mutiloa: txerri-gorriak; Mutriku: lapazorrixak; Olaberri: dotoreak; Oinati: txantxikuak; Ordizi: azak; Orendain: eltxoak; Orio: ijitoak; Ormaiztegi: harrikalariak; Segura: zopa-jaleak; Soraluze: hauts-herrikoak; Tolosa: zuriak edo haizeak; Urretxu: otamotzak; Zaldibi: arkakusoak; Zarautz: haizeak; Zegama: beleak; Zerain: xaguak; Zumarraga: otamotzak.

Hauek dira aurkitu ditudanak, Ikusten duzuenek, oso zabal eta ezberdinak dira. Zer esanahi daukate? Beste herri batzuetakoak ez ditut aurkitu. Norbaitek gai honi buruzkoa informazio gehiago balu, gustura hartuko genuke. Hurrengo alean ere, izango da beste zerbait. Agur.



> Larraulgoak, tabako-erretzaileak



> Anoetakoak, kukuak



> Inaki Irazabalbeitia



> Beltxi, Pintto eta Aini II.a maiatzaren 20an, sei asterekin.

KATU KONTUBAK

Urte askotan etxean katurik izan ez eta duela urte pare bat katakume bat ekarri genuen Olaberritik, koinatuaren etxetik. Olatz jarri genion izena, gure etxean izen hori izan dutelako hiru koloretako katuek. Emea zen, horrelakoak direlako normalean hiru edo kolore gehiagoko katuak. Oso otzana zen eta laster moldatu zen etxera. Halako batean desagertu egin zen. Kamioan odol-arrastoak ikusi nituen eta pentsatu nuen, akaso, autoreen batek jo zuela gure Olatz. Gorpuaren arrastorik ez nuen aurkitu, ordea.

Koinatuari beren katemearen hurrengo kumaldiko katu bat gordetzeko eskatu nion. Halaxe egin zuen eta iazko abuztuan Aini ekarri genuen etxera. Ilajea, gris marraduna gaintetik eta zuria azpitik. Horrelako ilajeko katurik gurean inoiz izan gabe, izen berria behar zuen garai bateko Olatz, Pintto, Beltxi edo Xapiz bereizteko. Emea hau ere. Inoiz ikusi dudana katurik otzanena da. Azkar eta erraz moldatu zen etxera.

Ainiri gerria loditu zitzaion negu bukaeran eta apirilaren hasieran hiru umez erditu zen: bi ar

eta eme bat. Ukuilu izandakoan konpostagailuari eransten diodan materia lehorra gordetzeko usatzen dudana zakuetakoa batean erditu zen. Kaxa batean jarri nituen goxo-goxo toalla zahar baten berotasunean. Kezka nuen, izan ditugun beste kateme batzuek egin duten moduan, ezkutatu egingo zituela katakumeak. Ez zen horrelakorik gertatu eta egunez egun katakumeak nola hazi diren ikusteko parada gozagarria izan dugu.

Arretako bat, Pintto deitutakoa, amonaren etxea izandakora joan zen ekainaren hasieran haren tokia hartzeko lanarekin, ehiztari trebea baitzen amona. Ainitze II.ak, emeak, lagun baten etxerako bidea hartu zuen. Beltxi gelditu da gurean, inguruko sagu, arratoi eta enparauak ehizatzen amaren laguntzailea izateko. Aini ez da ume gehiagoz erdituko, antzutu baitugu eta hor bukatuko da bere leinuaren segida gure etxean. Beltxik emango dio segida beste nonbaiten...

Felis catus espeziekoak dira gure etxeko katuak eta baita basatutako etxeko katuak. Beste espe-



> Uztailaren 26a, Beltzik ia lau hilabete ditu eta koxkortuta dago. Hala ere, amaren errapatetik tiratzen saiatzen da



> Pinto amaren opariarekin ahoan maitatzaren 26an



> Basakatua, (Luc Viatour-en argazkia: <https://lucnix.be>)

zie batekoak dira basoan jaio eta bizi diren beste katuak, basakatuak: *Felis sylvestris*. Atzen hauek atzera egiten ari dira. Batetik, habitata galtzen ari dira eta, bestetik, etxeko katuekin erraz hibridatzen direnez, hots umeak izan ditzaketenez, arrazaren purutasuna galtzen ari da, alegia, ezaugarri genetikoak.

Hara wikipediak zer dion *Felis catus*-ei buruz:

“**Katua** edo **etxe-katua** (*Felis catus* edo, batzuetan, *Felis silvestris catus*) animalia haragijale txiki, gehienetan iletu eta etxekotua da. Karniboro ordenaren barruan Felidae familian sailkatzen da. Beste felido batzuek ere *katu* izena izaten dutenez, askotan **etxe katua** erabiltzen da ezberdintzeko, nahiz eta basakatua eta hura desberdinak izan. Beharrik ez dagoenean, *katu* hitza soilik nahikoa izaten da. Katuak oso erabiliak dira konpainia emateko gizakiei eta saguak zein beste animalia ez gogoko batzuk ehizatzen duten gaitasunagatik. Katuak gizakiekin bizi dira gutxienez orain dela 9.500 urtetik eta gaur egun konpainia-animalia hedatuena da. Gizakiekin batera bizi direnez, ia edonon aurki daitezke mundu zabalean.

Anatomiari dagokionez, katuak beste felidoen oso antzekoak dira, gorputz indartsu eta malguarekin, erreflexu handiekin, atzapar luze eta erretraktilak eta animalia txikiak ehizatzen duten gaitasuna ematen dioten hortzeriarekin”.

Eta hortik aurrera Wikipedian leitzen jarraitzea gonbidatzen zaituztet: <https://eu.wikipedia.org/wiki/Katu> *Felis sylvestris*-ari buruz honako informazioarekin hasten da:

“**Basakatua** (*Felis silvestris*) felido haragijale txiki bat da, Europako bigarren felido basatia katamotza baita bestea. Afrika, Asia mendebalde eta Europan bizi da. Animalia txikiak ehizatzen ditu, euren artean ugazten eta txori txikiak. Basakatuak euren esparru naturalean sabana, baso ireki eta estepatan bizi ahal dira. Katurik gehienak marroiak dira marra beltzekin, 50 eta 80 cm artean neurtzen dute eta 3tik 6 kg-ko pisua dute. Afrikar subespezieak txikiagoak izan ohi dira.

Arazo asko ditu bere kontserbaziorako. Habitata-galera dago alde batetik. Gainera jazarpen gogorra jasan du gizakiaren aldetik oilategietan egindako erasoengatik, nahiz eta ikerketa batzuk etxeko katuek eta hibridoek eraso gehiago egiten dituztela argitu duten, basakatuek gizakiaren presentziarekiko mesfidantza handia baitute.

Azkenik hainbat lekutan hibridazio arazo larriak ditu eta arrazaren purutasuna galtzen ari da, Euskal Herrian kasu. Etxeko katu asko basora jo eta basati bihurtu dira. Hau dela eta, arazo larria sortu da katu hibridoak sortzen direlako eta espezie basatia pixkanaka galtzen ari delako”.

Hementxe leitzen segitzeko: <https://eu.wikipedia.org/wiki/Basakatu>



> Ainhoa Jauregi Otaño

MAYI



> **Mayi harrian zizelkatua.** Ainhoa Jauregi.

Ekaitzaren ondoren, behe-lainoak emeki-eme-ki, Hernio mendilerroa ari du estaltzen. Tarteka, agerian gelditzen dira Alluts ingurua, Belako eta Zopiteko haitzak beren kobazuloekin, Lortxiñaga baserri zaharra, Berraingo borda bakartia... Paisaia, benetan, liluragarria eta berezia bilakatzen da, eta orduan, Benito Lertxundi euskal kantautore handiaren “**Mayi**” kantu herrikoia datorkigu burura. Kantu hori, tristea bezain magikoa da; nolabait, gure herriaren iraganera garraiatzen gaituelako, eta noski, gure ama lurraren altzora.



> **Alluts ingurua eta Hernio mendilerroa behe-lainoan.** Ainhoa Jauregi.



> **Lortxiñaga
baserria
behe-lainoan.**
Ainhoa Jauregi.

> **Berraingo borda
behe-lainoan.**
Ainhoa Jauregi.





Eta zera diote “Mayi” abestiaren hitzek (Eskuinaldean abesti bera ageri da euskara batuan):

*Ura ixuririk sorginen bidean
dohaina bildu dut Bazko arratsean.*

*Gauaz Mayi nauzu, egunaz oreina
etxeko zakurrek xerkatzen nutena.*

*Jakes nun tuk horak ezdiat senditzen
oihanpean kurri, oreina xerkatzen.*

*Jakes deit zakurrak, salba zak arreba
ama nola sinets Mayi daitekela.*

*Jakes zakurrei hasi da xistuka
oreina hil dute kolpez hausikik*

*Jakesek kanitaz eman du pusketan
aseko ahal da Mayi gurekilan.*

*Afal, afal Jakes ni nuk hor lehena
ene haragiaz beterik dupina.*

*Ama sala zolan nigarra begian
puñala sartu du bere bihotzean.*

*Ura isurtzean sorginen bidean
dohaina jaso nuen Pazko arratsean.*

*(Ordutik,) gauaz Mayi nauzu, egunez oreina
etxeko zakurrek segitzen nautena.*

*Jakes, non dira zakurrak ez baititut sentitzen
oihanpean korrika, oreinari segika.*

*Jakes, deitu zakurrei, salba ezak arreba
ama, nola sinets dezaket Mayi (oreina) dela.*

*Jakes zakurrei hasi da txistuka
(baina hauek) oreina hil dute hozkaka.*

*Jakesek labanarekin egin du oreina pusketan
(eta zera dio bere baitan): Aseko al da Mayi
gurekin?*

*(Mayiren ahotzak Jakesi:)
Afal, afal Jakes, ni nauk hor lehena,
nire haragiaz beterik dago eltzea.*

*Ama etxean sarturik, negarra begietan duela,
puñala sartu du bere bihotzean.*

Gu ere behe-lainoaren antzera, abesti eder horretan murgiltzen bagara, jarraian aipaturikoaz ohar gintezke: euskal kantu hau herrikoia izanik (mitoekin gertatzen den moduan), txertatuta gelditzen dira, Euskal Herrian garaian garaiko gizaratek mundua interpretatzeko izan dituen ikuspegi eta sinismenak. Kantuaren hitzei erreparatzen badiegu, badirudi, **mundua ulertzeko bi ikuspegi ezberdin** ageri direla, eta hori, metafora moduan, anaia eta arreba diren bi pertsonaien bidez islatzen dela dirudi: bata, **Mayi** dugu, emakumezko jentil-izena duen neska, oso antzinako erritu paganoetan sinesten duena; eta bestea, aldiz, **Jakes** da, gizonezko euskal kristau (gaztelarazko Santiago) izena duen mutila, antzinako erritu jentil edo pagano horietan sinesten ez duena. Baina kantuan bada hirugarren pertsonai

bat ahaztu ezin daitekeena eta hori Mayiren eta Jakesen **Ama** da. Amak bere altzoan, bere seme-alabaren bi mundu-ikuskerak bilduko lituzke, eta gure aburuz, metafora moduan, **munduaren oreka** irudikatuko luke. Era horretan, etxeko zakurrek Mayi hiltzen dutenean, amak bere buruaz beste egiten du eta mundua oreka galtzen hasten da.

Mayi pertsonaiaren mundu-ikuskerak **Harri Aroko** gizarte haiena da, hau da, Paleolitiko, Mesolitiko eta Neolitiko garaietakoa. Gizarte haietako gizakiek, ikuspegi **animista** zuten, herri primitibo guztiak bezala: Ingurune natural guztiak eta bertan dauden elementu guztiak, bere anima (arima) eta bizitza propioa dute. Hortik datorkigu “**Izena duenak izana du**” esaera zahar eta ezaguna. Gainera, aipatu beharra dago, Mayi pertsonaiaren izena sakratua



dela, Euskal Herriko Jainkosa indigenaren izena baita. Gure herriko Jainkosa hori, Mayi, Maddi, Mari, Andere, Dama... izenez ere ezagutzen duguna, **naturaren indarren adierazpen jainkotua litzateke eta bizitza, heriotza eta birsorkuntza irudikatuko luke**. Beraz, abestian azaltzen den Mayi hori, Mari Jainkosa ber-bera izan zitekeen, orein bihurtzeko ahalmena duena. Horrela, izaki nahiz ziklo natural guztiak bere adierazpenak dira. Horregatik, ohikoak dira Mayi edo Mariren metamorfosiak eta horregatik agertzen da hainbeste itxura desberdinekin: sugea, zaldia, **oreina**... Marija Gimbutas arkeologo eta antropologo entzutetsuak esana da “Animalia horiek dira, gutxi gorabehera, Magdaleniar garaiko labar margoetan agertzen zaizkigunak. Paleolito garaian amaieran, orain dela 10.000 urte, kobazuloetan gurtzen zuten bizitza-sorkuntza sinesmen horren aztarnak aurkitzen ditugu **Marirengan**”.

Mayik zerbait gehiago ere gogorarazten digu: garai urrun haietako dugula, euskaldunon altxor preziatua den **euskara** maitea. Gainera, indoeuropar inbasioen aurretik, kultura eta hizkuntza propio batekin iraun duen herri zahar hau mundu mitologiko bat eraikitzen joan da, bertako sinesmenekin batera kanpoko eragin asko jasoz eta bereganatuz. Baina, oro har, esan daiteke Euskal Herriko mitologiak osotasun bat eta bere ezaugarri propioak dituela.

Horrenbestean, herri honetako mitologian murgiltzen bagara, **Harri Aroko** gizarte haiek, orokorren, **izaera baketsua** zutela ohartuko gara; euskal mitologian ez baitago guda edo borroka izugarrien elezaharrik. Batzuetan, gertatuko ziren gizatalde ezberdinen arteko liskarrak eta heriotzaren bat edo beste, baina ez herri indoeuropar borrokalarietan bezala. Herri indoeuropar borrokalarien inbasioen ondorengo mitologiek badute bere guda jainkoa, baita borroka haien inguruko elezaharrik ere. Zelten mitologian nahiz mitologia klasikoan (Grezia eta Erroma), adibidez, gerra jainko eta gerra heroiak agertzen zaizkigu; euskal mitologian, aldiz, ez da horrelakorik. Badira jendeari beldurra eragiten dioten pertsonaia gaiztoak, jakina, baina ez da ageri guda edo borroka ospetsurik gure elezaharretan, ez pertsonaia mitologikoen artean, ez beraien eta gizakien artean ere. Antzinako euskaldunen jainkoak bizi-emaila eta gizakiaren babesle dira nagusiki.

Mayik edo Marik, naturaren jainkoa dugun horrek, bizitza eta heriotzaren zikloa irudikatzen duenak, injustiziaren aurrean zorrotza den arren, ez zaigu borrokazale agertzen.

Gainera, Harri Aroan, Euskal Herrian bizi ziren emakumezkoak eta gizonezkoak berdintasunezko gizarte batean bizi ziren, emakumeak garrantzi berezia zuelarik, bera baitzen eta baita bizitzaren sortzailea. Eta amak ziren giza-talde bakoitzaren ardatzak, oinordekotza emakumearen lerrotik egiten zelarik, **gizarte matrilineala** eratuz. Emakumearen garrantzi berezi hori gure mitologian islatzen da, jainko nagusiak emakumeak baitira: **Ama Lurra, Mari** edo **Mayi, Eguzki Amandrea, Ilargi Amandrea**.

Bestalde, **Jakes** pertsonaiak, Kristau izena duen arren, **Metalen Arotik** (K.a. 2.500, hau da, duela 4.500 urte) hasi eta **gaur egundainoko** mundu-ikuskerak irudikatuko luke. Badirudi, hasieran, **Kurgan** kulturako indoeuroparrak (**Yamnaya** bezala ere ezagutzen dena. Ikusi 1go irudia) eta beranduago, beste hainbat indoeuropar kulturako jendea (**Zeltak, Erromatarrak, Kristau jendea**...) Euskal Herrira etorri izanak, eragin nabarmena izan zuela Harri Aroko mundu-ikuskeraren eraldaketan. Izan ere, gure herrira etorri ziren indoeuropar horientzat, **gizona** zen ardatz nagusi eta ez emakumea. Ondorioz, gurtzen zituzten jainkoak gizonezkoak ziren. Beren gizarte-egitura hierarkizatuak eta patriarkatuak ziren. Metal Aroan, Euskal herrira etorritako Yamnaya kulturako jende horrek metala lantzen zuten, lanabesez gain, **armak ere egiten zituzten gerrateetarako**. Zaldia ere etxekotua zeukaten, beste zereginen artean, guduetan ere erabiltzeko.

Yamnayak artzain-nomadak ziren eta estepa Pontikoetatik (egungo Errusia ingurua) Europa Erdialdera joan ziren lehenik, bertako populazioarekin nahastuz. Ondoren, duela 4.500 urte, Europa Erdialdetik Iberiar penintsulara iritsi ziren, Euskal Herrira ere helduz. Era horretan, 500 urtez, hau da, K.a. 2.500tik K.a. 2.000 urte arte, Yamnayan eragina jasoko zuten Iberiar penintsulako biztanleek, eta noski, euskaldunek ere. Hori azken urteetan egin diren ikerketa genetikoei esker ikusi daiteke. Horien artean, Harvardeko Unibertsitatetik Iñigo Olaldek zuzendu duen ikerketa genetiko batek zera ondorioztatu du: **Yamnayek, Iberiar penintsulako eta**




Euskal Herri bertako gizonzkoen DNA ordezkatu zuten eta prozesu hori luzea izan zen, 500 urte iraun zuen. Ondorioz, egungo %70-80 gizonzko euskaldunen Y kromosoma Europa Erdialdetik etorririko Yamnaya haiena da eta ez Harri Aroko euskal gizonzkoena. Ikusi 2. irudia.

Beranduago, Zeltak etorri ziren, ondoren Erromatarak... Horrela, indoeuropar guzti horien eragina

garbi ikusi daitekeen adibide bat datorkigu gogora: **K.a. lehenengo mendean (Burdin Aroan)**, Estrabon greziar historialari eta geografoak honako hau idatzi zuen “*Baskoiek eta inguruko beste tribuek, hainbat jainkoen artean, gizonzko jainko gerlari bat gurtzen dute. Eta sakrifizio moduan, akerrak, zaldiak eta gduetan harrapaturiko zenbait preso sakrifikatzen dituzte*”.

> **1go irudia. Kurgan Kultura (Yamnaya edo Yamna Kultura)** Kalkolitoan eta Behe Brontze Aroan (K.a. 3600-2300 artean) Bug, Dniester eta Ural ibaiaren arteko lurraldeetan (Kaspiar Itsasoa eta Itsaso Beltzaren arteko estepan) garatu zen kultura arkeologikoa da. Artzain-nomadak ziren, nahiz eta ibai ondoetan edo eta kastro harresietan hainbat nekazal alor izan. Kultura honetako ezaugarri nagusia, berriz, **kurgan (tumulua)** errusieraz) izeneko ehorzketak ziren. (https://eu.wikipedia.org/wiki/Yamnaya_kultura).



> **2. irudia. Iberiar penintsulako historia genetikoak:** Kristo aurreko 2500. urtean hasi zen heltzen Estepa Pontikoko (Kurgan edo Yamnaya) genetika zeukaten Erdialdeko Europako jendea (berdez dagoena); gero 500 urtez ikusten dugu bi genetikako jendea bazegoela elkarrekin bizitzen eta nahasten. Baina, Kristo aurreko 2000. urtetik aurrera, ikusten dugu jendeak bi populazioen genetika duela, baina bakarrik kanpotarrena aiten aldetik (Y kromosoma). **Berria egunkarian argitaratua.** Y kromosoma beti, aitzak semeari pasako dion herentzia genetikoak da: Amaren obulua aitaren espermatozoideak ernaltzen duenean eta espermatozoiden horrek **Y kromosoma** badu, amaren sabelean garatzen joango den enbrio horren sexua gizonzkoak izango da.



Modu horretan, urteak etengabe igaro dira, Harri Aroko euskal gizarte hartatik egungo euskal gizarte hedatu arte. Tartean, milaka eraldaketa izan ditu euskal gizarteak, munduko beste gizarte guztiek bezala. Badirudi, jada, **Mayiren** mundu-ikuskerak hura betiko desagertu dela gure artetik. Eta hori datorkigu gogora Benito Lertxundi maisu handiak berreskuraturiko kantuaren estrofa hauek entzutean:

“Jakes zakurrei hasi da xistuka/oreina hil dute kolpez hausikik / Jakesek kanitaz eman du pusketan/aseko ahal da Mayi gurekilan / Afal, afal Jakes ni nuk hor lehenafene haragiaz beterik dupina”.

Ordea, hori ez da horrela. Izan ere, **Mayiren esentziak** oraindik ere gure artean jarraitzen baitu. **Mayik** gure inkontziente kolektiboan eta gure bihotzetan dirau. Eta esentzia magiko eta erreal horri eutsi behar diogu, munduaren oreka berreskuratzeko. Era horretan, gure seme-alabei, ilobei, bilobei... etorkizun hobea eskainiko genieke. Eta orduan, metafora moduan esanik, “Mayiren eta Jakesen ama berpiztu egingo litzateke”.

Harri Aroko arbaso haiek ez zuten gaur egungo aurrerapenik eta teknologiarik. Beren bizi-iraupea ez zen egungoen bezain luzea, baina egungo gizakiok baino sentimen handiagoa zuten. Bereaiek gai ziren izadian dauden energia fin horiek sumatzeko eta sentitzeko; oso umetatik ikasten baitzuten senideen laguntzarekin energia horiek sentitzen eta barneratzen. Eta horrela eraiki zuten **Mayiren esentzia: Ama lurraren altzoan dagoen guzti-guztia loturik dago eta sakratua da. Guztiak du arima, espirtua. Arima edota espirtu hori kontzientzia duen energia hilezkorra da.**

Guk duela urte batzuk arte, ez genuen kontzientzia duen energia horren berri, eta orduan, horren berri izanez gero, seguruenik ez genuke sinetsiko, **Jakes** pertsonaiaren antzera. Baina ikuspegi hori zeharo aldatu zitzaigun 2017ko maiatzaren 4ko egunsentian (esperientzia hori lehengo pertsonan azalduko dut):

Goizeko 6:00ak inguru ziren, ohean lo sakonean nengoen, eta bat-batean, bularraldean izugarriko bibrazio sentitzen hasi nintzen. Horrek derrepentean esnatu ninduen. Hasieran, erdi-lotan nengoen eta ez nintzen benetan jabetzen zer gertatzen ari zitzaidan. Baina bibrazio horrek gero eta indar handiagoa zuenez, ohean etzanda egotetik esertzera behartua sentitu nintzen. Halako batean, bi besoak dardarka hasi zitzaizkidan, bere kabuz mugitzen zirelarik, espasmo muskularrak izango balira bezala. Mesanotzeko argia, nolabait, piztea lortu nuen eta ordulariari begira jarri nintzen. Logelan bakarrik nengoen. Bihotzaren taupadak izugarri bizkortu zitzaizkidan, belarrietan burrunba etengabea entzuten hasi nintzen. Segidan, burmuinetan izugarriko presioa sentitzen hasi nintzen, garuna lehertuko zitzaidala zirudien. Garuneko presio hori begietan ere sentitzen hasi nintzen eta bi begiak betzuloe-tatik irtengo zitzaizkidalda ziruditen. Banekien nire barruko organo guztiak ondo zeudela baina, aldi berean, ez nekien energia hori zer zen. Hasieran, nire gorputzak sortua zela uste nuen, baina kanpotik zetorrela ohartzen hasi nintzen. Oso urduri jarri nintzen eta ezintasun horretan negarrari eman nion. Bat-batean, familiakoren bati ezbehar bat gertatu zitzaiola ohartzen hasi nintzen, baina ez nekien zeini. Horrek erabat beldurtu ninduen. Besoek bere kabuz mugitzen segitzen zuten, ezin nituen gelditu. Bihotza milaka taupadatan nuen, hesteetan izugarriko haize-mina sortzen hasi zitzaidan eta garuneko presio handi horrek berean segitzen zuen, belarrietan izugarriko burrunba entzunez. Norbaitek energia indartsu bat sartuko balira bezala sentitzen nuen: Bular-bihotz ingurutik sartu eta bizkarrezur guztira zabalduz, garuneraino iritsi arte. Horrenbestean, ohartu nintzen energia horrek zerbait jakinarazi nahi zidala eta beste dimentsio batekoa zela, hau da, hilen mundukoa. Horretaz konturatzean, nire gorputza, poliki-poliki, lasaitzen hasi zen, bere onera etorri arte: Besoetako espasmo horiek bukatu egin ziren; bihotzaren taupadak erritmo normala hartu zuten; garuneko presio izugarri hura ere joan egin zen, baita belarrietako burrunba izugarri hura ere; hesteetako haize-mina ere pasa



egin zitzaidan... Eta oraindik, begi eta masailak malkoz bustirik nituelarik, bizi nuen esperientzia hori benetan izugarria izan zela pentsatzen egon nintzen. Goizeko 9:20ak aldera, osabak telefonoz abisatu zigun izeba hilik zela.

Badirudi, izebak sentitu zuena, aldi berean, neronek ere sentitu nuela, bere **heriotza mugako esperientzia elkarrekin bizi genuela** (gaztelera, E.C.M. compartida). Badirudi, izebaren arimak, hau da, bere kontzientziadun energiak, nirearekin bat egin zuela.

Ordutik, ez naiz lehengoa. Orain beste modu batera ikusten dut mundua eta bizitza. Orain, badakit **erreala dela** maitasuna eta umiltasuna oinarri dituen **Mayiren esentzia** hori. Eta horri eutsi behar diogu.



> **Gure etxaurreko kablean enara.** Ainhoa Jauregi.



> **Ilargi amandrea, 2021eko ekainaren 24ko gauean. Alkizako plazatik ateratako argazkia.**
Ainhoa Jauregi.

Ez dugu ahaztu behar, gure hezurretan aurkitzen den kaltzio hori bera, aurkitzen dela gure inguruko kareharrizko mendietan.

Ez dugu ahaztu behar, gure odoleko globulu gorrietan aurkitzen den hemoglobinak burdin atomoa duela eta burdin hori bera aurkitzen dela gure oinek zapaltzen dituzten zelaietako, soroetako, mendietako lurretan... Burdin atomo horiei esker, airean dagoen oxigenoa arnasten dugu, bestela hil egingo ginateke.

Ez dugu ahaztu behar, ama lurraren magalean aurkitzen diren izaki bizidun guztiez. Horiek ere kontzientziadun energia dute.

Ez dugu ahaztu behar, ama lurra ez dela gizakiona, baizik eta gizakiok garela ama lurrarenak.

Ez dugu ahaztu behar, ama lurra zaindu egin behar dugula, guztia hondatzen ari baikara.



Ez dugu ahaztu behar, ama lurrera bizitza biziz, ikastera eta maitatzera etorri garela.

Ez dugu ahaztu behar, ama lurraren materiaz osaturik gaudela eta kontzientziadun energia maitagarria dugula. Energia hori ama lurretik haratago doa, hau da, unibertsorantz zabaltzen da eta horrek guzti-guztia lotzen du.

Izena duenak izana du.

MAYI.



> **Ekaitzaren ostean, Erromako zubia Alkizako plaza inguruan.**

Ainhoa Jauregi.



> **Mayi eta Sugaar, Sugaar eta Mayi, guztia bat da. Mayi, ama lurraren materia bizia eta ez bizia, eta Sugaar, kontzientziadun energia hilezkorra. Paleolitoan, Mayi eta Sugaar gauza bera ziren. Neolitoan, Mayik ama lurra errepresentatzen zuen (emetasuna edo emea dena) eta Sugaarrek (artasuna edo arra dena) zerua eta energia hilezkorra.**

Ainhoa Jauregi.



> Inaki Irazabalbeitia

BEGIRATOKIAREN IBILBIDEA

2019ko ekainean hasi zen legealdian udal taldeak ohitura hartu zuen Gipuzkoako eta EAeko arduradun politikoak gure herrira gonbidatzearena. Helburua klarua zen: elkarren berri izatea, administrazioaren asmoak ezagutzea, gure asmoak eta beharrak azaltzea eta elkarlanean bideak aurkitzea.

Testuinguru horretan jaso genuen udalean 2019ko gabonetan GFAko Ingurumen eta Obra Hidraulikoen diputatu Jose Ignacio Asensioaren eta Monica Pedreira Ingurumen Zuzendariaren bisita. Oso bisita emankorra izan zen, ezagutu ahal izan genuelako bertatik bertara zer asmo eta lehenetsun zituen GFAk legealdi berrirako.

Aipatu zizkiguten asmoen artean, Monicak bat azpimarratu zigun: gune degradatuak berreskuratzeko dirulaguntzen deialdiarena, erantsiz aurreko urtean oso eskaera gutxi izan zituztela. Udal taldeen asmoen artean Ilunbeko lera-bidea eta horri lotutako beste elementu batzuk berreskuratzeko ideia bazebilkigun eta baita horri Santa Kruzeko begiratokiko aspaldiko asmoa eranstekoa. Horixe azaldu genion Monicari punpa lasterrean. Eta gune degradatuen deialdiaren filosofian bete-betean uztartzen zela erantzun zigun, gure harridurarako beste ikuspegi murriztagoa baikenuen. Klaru gelditu zen, beste behin, hitzak duen garrantzia testuei argia egiteko.

Proiektuen finantzazioaren ikuspegitik beste kontu bat azpimarratu zigun Monicak: onartutako proiektuak oso-osorik GFAk ordaintzen eta

kudeatzen dituela. Pagotxa gurea bezalako udal txiki eta pobreentzat.

Azpeitiko Kimubat enpresarekin landu genuen Begiratokiko Ibilaldiaren proiektua eta GFaren deialdira aurkeztu eta baita lortu ere. Hasierako proiektuak bost interbentzio-gune nagusi zituen: aparkalekua (Kimubaten ideia izan zen Alkizako ibilbide guztiak hortik abiaraztea), Ilunbeko galtzada, Itxuraingo iturria eta tumulua, Santa Kruzeko begiratokia eta Iribetitiko pago motzen saila inguratzen duen pinudia.

Asmoak asmo hasierako proiektuak aldaketak izan zituen bukaerarako. Iribetitiko pagadia inguratzen duen pinudiko nagusiarekin hitz egin genuen bagenekielako pinuak botatzeko asmotan zebilela. Proposatu genion pinuak bota ondoren udalak pagoak landatzea sail horretan eta baso hori hamar urtez zaintzea. Interbentzioaren helburua zen pago motzen pagadiari jarraipena ematea eta lotzea goraxeago dagoen pago eta haritzen baso mistoarekin. Horrela herritik gertu hostozabalen azalera adierazgarri bat lortzeko modua zegoen. Nagusiak onartu egin zuen udalaren proposamena, baina egurtzaleak borondaterik ez zuen erakutsi basoa egoki eta garai botatzeko. Pena! Ezin izan dugu egin. Alabaina, egiteko asmoa dugu, aukera fortunatzen denean eta nagusiak ados segitzen badu.

Aparkalekuko parrilla izan da beste nobedadea. Ez zegoen aurreikusita, baina pagoak ez aldatzeak aurrekontuan diru-funts bat libre laga zuen eta horrek parada eman digu parrilla jartzeko.



> Herriko eta Oriaren ibarreko bista ikusgarria dago Santa Kruz ermitako begiratokitik



Alkizako Udala




GFA

ilategitik

www.oilategitik.net

Datorren urtera arte!



Santa Kruzeko begiratokia



Hilerni ondoko auzolari gunea



Ilumbeko gaitz-sarria



Berandango karobla